

Lan hau Euskal Pizkundera deritzan fenomenoaren osagarritzat har genezake. Bertan Arabatik burutu ekarpena aztertzen da, batez ere Gasteizko Apaizgaitegian sortutako kultura mugimendua kontuan hartuta. Jose Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona dira euskal kulturaren susperketa haren ardatzak, eta haiek eragindako sortze-prozesu aberatsean dozenaka gazteren baitan loratu zen hazia, XX. mendearen lehen herenean ez ezik baita geroago ere bere fruitua emango zuena.

Giltza-Hitzak: Araba. Euskal Pizkundera. Gasteizko Apaiztegia.

Este trabajo podría considerarse como complementario del fenómeno denominado Euskal Pizkundera o Renacimiento Vasco. En él se analiza la aportación realizada al mismo desde Álava, sobre todo teniendo en cuenta el movimiento cultural surgido en el Seminario de Vitoria. Los artífices de ese resurgimiento de la cultura vasca fueron Jose Migel Barandiaran y Manuel Lekuona. El rico proceso creativo impulsado por ellos hizo florecer la semilla en docenas de jóvenes, que fructificó no solo durante el primer tercio del siglo XX, sino también posteriormente.

Palabras Clave: Álava. Renacimiento Vasco. Seminario de Vitoria.

Ce travail pourrait être considéré comme complémentaire au phénomène appelé « Euskal Pizkundera » ou Renaissance Basque. Il analyse sa contribution par l'Araba, compte tenu notamment du mouvement culturel surgit au Séminaire de Vitoria. Les auteurs de cette résurgence de la culture basque étant José Migel Barandiaran et Manuel Lekuona. Ce processus riche et créatif, impulsé par eux, fleurit et porte ses fruits chez des dizaines de jeunes, au cours du premier tiers du XXe siècle, mais aussi par la suite.

Mots-Clés : Araba. Renaissance Basque. Séminaire de Vitoria.

# Euskal Pizkundea Arabán

(The Basque Resurrection  
in Alava)

**Velez de Mendizabal, Josemari**  
Eusko Ikaskuntza. General Alava, 5-1.  
01005 Vitoria-Gasteiz  
josemari@eusko-ikaskuntza.org

BIBLID [0212-7016 (2012), 57: 2; 396-430]

Jaso: 2012.07.12  
Onartu: 2012.09.10

## 1. Sarrera

Euskal Pizkundea deitu izan den fenomenoak zer-nolako eragina izan zuen Araban ezagutu aitzin, lurralde honetako eremu kulturaletik oster bat egitea komeni da. Horrela, XX. mendearen lehen hereneko urteetatik igaro baino lehen, XIX. mendearen magaletatik gora egingo dugu, gaingiroki bada ere. Garai hari begira, Araba aipatzen denean, Gasteiz ulertu behar da, ia bere osotasunean.

Esan izan da, Euskal Herrian kultura egin ahal izan dutenak apaiz edo erlijiosoak izan direla. Baieztapena ez dago errealitatetik hain urruti. Eta gure herrialdeetako erlijio-bizitza inon indartsua izan bada, hori Arabako hiriburuan gertatu da, mendetan. Gasteizko elizbarrutia 1861ean ezarri zen, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia hartzen zituela. Lehendik bazen hiriburuan eliza-apaizgaitegi bat Apaizgaitegi Txikia edo Agirre izenekoa– eta oso ibilbide emaritsua eraman zuen XIX. mendean zehar. Eskauriaza-Eskibel jauregian zegoen kokatua. Gotzaingoari iruditu zitzaion barruti berriak eraikin aproposago bat eduki behar zuela, osotasunean beraren mendekoa izango zena, eta, 1880an, Apaizgaitegi Kontziliarra inauguratu zen, Santa Maria katedralaren ondoan. Ehun gazterentzako tokia zeukan eraikin berriak, baina aurki txiki geratu zen, Arabatik ez ezik, baita Gipuzkoa eta Bizkaitik ere iristen ari ziren eskabideak zirela-eta. Handik hiru urtera, berriz, eraikina handitu egin zen, eta ehun eta berrogeita hamar apaizgaiterentzako tokia atondu zen<sup>1</sup>.

Beraz, bi apaizgaitegi zituen Gasteizek XX. mendearen hastapenetan, eta bertan graduatzen ziren euskal apaizak, haien gehiengoa, Oñati, Andoain, Gordexola, Saturraran eta Gaztelu-Elexabeitiako apaizgaitegi txikietatik igaro ondoren. Baina bi eraikin haiei mugak estutu egin zitzaizkien, eta 1926an ekin zitzaion apaizgaitegi berriaren jasotzeari. Aurreko biak batuko zituenak 1930ean ireki zituen ateak.

Urte batzuk lehenago, XX. mendearen aurreneko hamarkadan, Gasteizko apaizgaitegira Jose Migel Barandiaran gazte ataundarra heldu zen, eta bera da or-

---

1. "Obispado Vitoria. Comisión Día del Seminario. Memoria 1944".

dudanik bertako pertsonaiarik inportanteenetako bat. Bertatik irradiatu zuen Barandiaranek bere lana, harik eta 1936ko Gerra Zibilak erbesteko bidea hartzera behartu zuen arte.

Barandiaranen bide berdintsutik baina lau urte geroago, Manuel Lekuona oiartuarra ailegatu zen Gasteizera, eta, Barandiaran bezala, behin apaiztuz gero, zentroaren bizitza akademikoan aritu zen 1936ra arte, besteak beste Euskara eta Euskal Literaturako irakasle gisa.

Barandiaran eta Lekuona bezala, ehunka gazte iritsi ziren Gasteizera, elizakasketak burutzeko asmoz. Ez da samurra ideia zehatza egitea, XX. mendeko lehen heren luzean Apaizgaitegiak euskal kulturarentzat adierazi zuenaz. Seguruenik, ez da izango euskal historian, Euskal Herriko Unibertsitatea sortu aurretik, euskal kulturarentzat Gasteizko Apaizgaitegiak bezainbeste fruitu eder eman duen goi-mailako hezkuntza-zentrorik.

Gasteiz hiriko alderdi zibilean ere kultura-gaien maila ez zen nolana hikoia. Bertan sortu zen, 1869an, Gasteizko Literatura Unibertsitatea, eta Filosofia eta Letrak karrera egin zitekeen, nahiz eta bi urtez soilik iraun zuen, Bigarren Karlistaldiaren ondorioz desagertu baitzen. Baina giroa ipinita zegoen. Argitalpen literarioak ez ziren gutxi –*El anunciador vitoriano, La Concordia, El Gorbea, El Heraldo alavés, Libertad*–, besteak beste.

Kultura Elkarteak ere garrantzitsuak ziren, berez biztanleriaz txiki zen hirian. Ateneo Científico, Literario y Artístico –bi argitalpen zituen, *Revista del Ateneo* eta *Revista de las Provincias Euskaras*–; Academia Alavesa de Ciencias de la Observación –besteak beste, Manuel Iradier eta Federico Baraibar kideekin–; La Academia Cervántica Española –Fermin Herran eta Julian Apraiz izan zirelarik eragile-rik porrokatuenak–; Academia de Ciencias Médicas –Ramon Apraiz izan zuena sortzailea–; eta beste elkarte apalago batzuk, hiriko bizitza kulturalari saltsa ematen ziotenak.

Hori bai, XIX. mendearen hondarretako Gasteiz hartan euskal giroa ez zen oso normala hiriko kaleetan. Eta lorpenik aurreratuenak hiritar ospetsu batzuen ikerketa-lanetara mugatzen ziren. Oso lan interesgarriak, zalantzarik gabe, baina esparru berean Euskal Herriko beste latitudeetan burutzen ari zenarekin alderatuta, apal samarrak, nonbait. Izenen artean, Federico Baraibar euskaltzalea aipatu behar da.

Hogeigarren mendeak zerumuga zabalagoak ekarri zituen euskal kulturarentzat Araban, eta hor aipatu behar dugu Apraiz sendia, batez ere Angel eta Odon anaiak. Angel –Artearen Historiako katedraduna Salamancan 1911tik– Eusko Ikaskuntzaren *alma mater* izan zen, eta erakundearen lehen idazkaria, 1918an.

Araban euskararen presentzia oso mugatua zegoen XX. mendearen hastapenetan. Eta hizkuntza horretako ekoizpena hutsaren hurrena genuen, Euskal Herriko lurraldeetako ekarpenik murrizena, nonbait. Horrela jarraituko zuen mendeko lehen herenean ere, Gasteizko Apaizgaitegiaren salbuespenarekin. Horixe dugu Arabatik irradiatuko zen euskal mugimenduaren zentroa. Uhina Arabatik Arabara iritsi ote zen, beste galdera bat da.

## 2. Apaizgaitegiko bi izen erraldoi

### 2.1. Jose Migel Barandiaran

Barandiaran 1914an apaiztu zen. Urte batzuk lehenago, artean teologiako ikasketak amaitu gabe, euskal etnografia eta arkeologiara zaletu zen. Apaizgaitegian klaseak emateari ekin zion 1913an, Fisika ikasgaiarekin hain zuzen, baina euskal ikerketak hartu zuen tokia, indar handiz, Barandiaranen bizitzan. Eta lan mardul bezain joria irradiatu zuen Gasteizko Apaizgaitegitik 1936ra arte. Berari zor zaio, nolabait esatearren, euskal kontzientziaren hedapen kulturala, bai arabar eliz-zentro hartan baita handik kanporako hedapenean ere. On Jose Migel izango da XX mendearen lehen hereneko argi dorrea, eta Arabatik Euskal Herri osora urte haietan irradiatuko den kultura-suaren piztailerik handiena.

Dena den, ongi etorriko da adieraztea Barandiaranek apaizgaitegian euskararekiko aurkitu zuen giroa ez zela batere aldekoa izan. Eta ez zuen ama-hizkuntza erabiltzen. Berak kontatzen zuen anekdotari jaramon eginez, ikaskideekin Gasteizko inguruetatik osterata egiten ari zela, txakur bat atera zitzaion bidera eta ataundarrak –berezko ateraldiaren eraginaz– “*Hori txakur gorrie!*” ozen bat bota zuen. Ikaskideak begira geratu zitzaizkion harrিতuta, ez baitzekiten euskaraz zekienik.

Barandiaranen egunerokoetan Barandiaran-Lekuona bikoteari buruzko lehen aipamena 1917ko otsailaren 2koa da:

**Febrero 2, viernes.** Acompañado de Lekuona fui a Zuazo de Vitoria, donde me llamó la atención una piedra arenisca de cuatro decímetros de lado, ocupando la parte media de la pared N.W. de una casa. Tenía seis orificios que eran otras tantas ventanas que daban paso a la luz y al viento.

Euskal kulturarentzat hainbeste lan egin ondoren goi-erpina lortuko zuen bikotea martxan dago, beraz, Gasteizko Apaizgaitegian.

Goian komentatu dudana bezala, apaizgaitegiko giro kulturalari jarraiki, ataundarrak gaztelaniaz idazten zuen bere egunerokoan, eta horrela egin zuen ia-ia bere osotasunean, 1917-1936 bitartean.

Eusko Ikaskuntzaren sorrera ekarri zuen I. Kongresua 1918ko irailean izan zen Oñatin, eta bertan, Barandiaranek ere hartu zuen parte, Historiaurreko bi ikasgai eman zituelarik. Eusko Ikaskuntzaren eragina ere ikusi behar dugu, derrigorrean, Gasteizko Apaizgaitegian aurrerantzean loratu zen ekarpenean. Horra hor, adibidez, 1921ean *Eusko Folklore* aldizkaria, Barandiaranek sortua, eta hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntzarena den Jose Migel Barandiaran Fundazioaren bitartez egunera arte bizirik iraun duena. Agerkari hura urtean behin ateratzen zen.

Eusko Folklorearen jaiotzari buruz aipa daiteke, 1921eko apirilaren 2an Apaizgaitegi Kontziliarrean buruturiko bileran, honako hauek izan zirela hautatuak lehen Zuzendaritza Batzorderako: Jose Miguel Barandiaran, Manuel Lekuona, Eugenio Larrañaga, Jose Ariztimuño, Leon Bengoa, Manuel Lopez, Juan Iruretagoyena, Juan Aranguren, Leonardo Guridi, Andres Agirre, Tiburtzio Ispizua, Felix Zamalloa, Markos Maguna-goikoetxea eta Julio San Pedro.

Barandiaranek Euskal Herriko lurralde guztiak *Eusko Folklore* ordezkatuta egotea nahi izan zuen, ikerketa-lana ahalik eta hedatuena izan zedin.


Sortze-une hartako protagonisten artean baditugu bi 1936an fusilatua izan zirenak, astebeteko diferentziarekin: Jose Ariztimuño "Aitzol" eta Leonardo Guridi, urriaren 17an eta 24an, hurrenez hurren.

Sorburu hartan ikus dezakegu, bestalde, Barandiaranen "*Eusko Folklore. Materiales y Cuestionarios*" deritzan egitasmota abiapuntua. Areago, lantegi honetan jar liteke "Eusko Folklore"ren ideia, izan ere 1921ean baino lehenago ekin baitzion ataundarrak herri-jakintzaren inguruko datu bilketari. Nondik eta, noski, Apaizgaitegitik bertatik. Aprobetxatzen zuen zentro hartako ikasleen laguntza paregabea, oportretan etxeratzean Barandiaranek prestatutako galdetegi aproposaren bidez lan egiten zutenak. Hego Euskal Herriko hainbat laguntzaileen izenak agertzen dira orri haietan: Manuel Sorondo, Pedro Sudupe, Julian Azpiroz, Leonardo Guridi, Juan Arrien...

Lau orrialdetako agerpen xumea zen hura, hilean behin kaleratzen zena, eta sistema hari esker kolaboratzaileen sarea handiagotu ahal izan zuen. Euskal Herriko legendak, ohiturak, ipuinak batzen zituzten, gehienetan zuzen-zuzenean euskaraz hitz egiten zieten pertsonengandik. Horregatik, hizkuntzaren aldetik ere lan baliotsua burutu zuen Barandiaranek, 1921 eta 1936 bitartean Gasteizko Apaizgaitegitik zuzendutako ekimen honen bidez.

Ordurarte burututako lanaren lagin bat aurkeztu zuen Barandiaranek 1919an Bilbon izandako Kongresu batera. Hain zuzen, Zientzien Garapenerako Espainiako Elkarteak antolatutako hartara "Contribución al estudio paletnológico del pueblo vasco: el magismo" deritzan lana eraman zuen.

Edozein modutan, Eusko Ikaskuntzaren eragina apaizgaitegiko garai hartako irakasle eta ikasleengan nolakoa izan zen ideia zehatza eman dezake 1922an Gernikan erakunde hark eraturako III. Kongresuak. "Euskara eta Irakaskuntza" izan zen gaia. Adierazi behar da, besteak beste, orduko, Barandiaran, Lekuona eta Ariztimuño "Aitzol" bazirela Eusko Ikaskuntzaren bazkideak, eta zuzeneko jarraipena egin ahal izan zioten Kongresuari.



Kongresu hartako Hizkuntza Sailaren ondorioak oso zehatz eta interes handikoak gertatu ziren, eta euskararen eta eliza-jokaeraren arteko puntuak kontuan eduki zirela esan liteke, apaizgaitegian handik aurrera jazotakoari bagagozkio. Irakur ditzagun, Kongresuaren Hizkuntza Saileko hoge iradokizunetatik, eliza-kontuekin erlazionatutakoak:

Euskalerriko Obispoak, euskaldunak, euskera dakienak izan daitezala [...] Euskalerriko Obispoak aldizka egiten dituen Pastoralak euskeraz argitaldu dagiezala [...] Gaur izkelgi bardingedun euskaldunak alkarrekin batzen diranean otoitz egiteko, ezin dabe ezetare be euren errezuak bardinki egin; au aurrerantzen yazo ez taiten Euskaltzaindiak egin eta argitaratu dagiala izkuntza bakarrean egñiriko oraziño txortatu bat. Orazino onek euskaldun guztientzako izango litzakez, eurek orritxuetan idatzita, erri guztietatik zabaldu ezkeru [...] Euskalerriko abade guztieri, alderdi politiko guztietatik alde eginda, erriari eliza arazo guztiak euskeraz irakatsi dagioela eskatu, ta gañera, eurek, abadeak, euskera lantzeko alegin beroak egin dagiezala [...]

Berriz ere azpimarratu behar da, gauza bat dela nahia eta beste bat aukera. Eta aukera gutxi eta zailak ziren apaizgaitegian. Barandiaranek berak idatzita utzi zuen, 1924ko urtarril-otsaileko egun batean:

Enero-Febrero (en París, dos cursillos en la Sorbona) A la vuelta de París, D. Asunción Gurruchaga, Vicario general de la diócesis, me prohíbe asistir a la junta de la Sociedad de Estudios Vascos, junta que tendrá lugar en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa (San Sebastián) el día 3 de Marzo. Es la segunda vez que se me prohíbe asistir a tales juntas. No quiere que yo me excuse ante la Sociedad diciendo que mis superiores me prohíben asistir a sus juntas. Asistir a las juntas de la Real Sociedad Española de Ciencias Naturales, donde casi todos son materialistas, no se me prohíbe; pero sí a la de Estudios Vascos, porque dicen que un político de Bilbao ha dicho que esta Sociedad es nacionalista. ¿No será primero la religión que la política?

Apaizgaitegi giroa hobeto ezagutzeko, 1924ko honako adibide hau ere baliagarria zaigu:

Día 27. El censor eclesiástico D. Asunción Gurruchaga, al censurar el nº de Enero de Eusko-Folklore que publico, viendo que en él hay una cita en francés tomada de un artículo que el Dr. Aranzadi publicó en "Revue d'Ethnographie", me prohíbe terminantemente imprimirla en francés, diciendo que, pues Eusko-Folklore es para los españoles, todo se debe escribir en castellano, aun cuando se trate de citas y textos tomados de libros extranjeros.

Zailtasunak zailtasun, 1920tik Apaizgaitegi Kontziliarreko errektoreordea izateaz gain, 1926ko uztailan, Apaizgaitegi Txikiko errektore izendatu zuten Barandiaran.

Barandiaranek, Antonio Pildain, Leonzio Aravio-Torre eta Manuel Lekuonarekin batera, Lyceum Cassiciacum zeritzan taldetxo osatu zuen 1924an, eta apaizgaitegian zientzia jorratzen zuten lau irakasle horien elkarte bilakatu zen, *tertulia erlijioso-zientifikoari* eragiteko. Biologia, gizarte-psikologia eta antropologia izan ziren lehen langaiak, eta, euren arteko solasaldien emaitza positiboa zelako, argitalpenen bat argitaratzea eta taldea beste lagun batzuei irekitzea erabaki zuten.

## Gymnasium

Handik hiru urtera, 1927ko martxoaren 21ean, *Gymnasium* aldizkaria jarri zuen martxan Barandiaranek. “Revista bimestral de iniciación científico-literaria” izenez titulatu zen. Lehen zenbakian, hau irakur daiteke:

Nos ha parecido siempre de capital importancia que nuestros alumnos se inicien, por lo menos, en el arte de vulgarizar, de hacer el pensamiento asequible para todos, de exponer de modo atractivo y en lenguaje corriente la ciencia adquirida en clase. Porque ¿de qué sirve el aprender cosas buenas, si luego no se sabe expresar?

Jose Migel Barandiaranek berak idatzi zuen artikulu nagusia lehen zenbaki hartan: “El método en las ciencias”. Aipatu behar da, aldizkariak lehen zenbakitik bere aurrealdean eramango zuen irudia Juan Zabalo “Txiki”rena izan zela, Larrañetaren marrazki baten aldaera moduan. Lehen zenbakian, Barandiaranen erabakiz, Larrañetaren trikotomia ederra oparitu zitzaizen irakurleei.

Argitalpen txukuna da *Gymnasium*, eta publizitatea zeraman, eta Euskal Herriko merkataritza-enpresak ez ezik, badira Bartzelona eta Madrileko batzuk ere. Urteko harpidetza 3'50 pezeta zen urteko, Espainiarako. Ameriketarako, beriz, 4'50.

Eta lehen zenbaki hartan, hamabost bat lanen artean, euskarazko aurreneko hiru artikuluak agertu ziren. Bi, literatura-sailean: Anixeto Zugasti apaizgai altzatarrak sinatzen zuena eta Angel Albisu errenteriarrena; eta “De Re Catechetica” zerritzanean, Patxi Iraetak burututakoa.

Bi hilabete behin argitaratzen zen, eta 1932ko maiatz-ekainekoa izan zen azkena. Hogeita hamahiru zenbakietatik lautan –lauak 1930ekoak– ez zen euskarazko edukirik publikatu. Gehienetan, euskarazko orrialdeen kopuruari begira, aurreneko zenbakiaren proportzioari eutsi zitzaion, eta gaiak denetarikoak izan ziren.

Honako lauki honetan sailkatu dira gaiak eta bakoitzean idatzi zuen apaizgaiaren izena:



| Zientzia           | Catechetica      | Literatura        | Misioak            | Beste   |
|--------------------|------------------|-------------------|--------------------|---------|
| Eneko Larrañaga    | Manuel Madariaga | Anixeto Zugasti   | Martin Lekuona     | “Patxi” |
| Jesus Azkue        | Patxi Iraeta     | Iñaxio Larrañaga  | Meliton Sarasua    |         |
| L. Agirre          | “L.”             | Praixko Garmendia | Marcelino Errezola |         |
| Martin Lekuona     | Angel Albisu     | “L.”              | Erramon Ertze      |         |
| Saturnino Gantxegi | “Juan Etorri”    | Meliton Sarasua   |                    |         |



| Zientzia      | Catechetica        | Literatura              | Misioak | Beste |
|---------------|--------------------|-------------------------|---------|-------|
| Iñaki Azpiazu | “Erresiñola”       | J.E. Iraola             |         |       |
| Koldo Agirre  | “Olaburu”          | Fabian Loidi            |         |       |
|               | Marcelino Errezola | Martin Lekuona          |         |       |
|               |                    | Angel Albisu            |         |       |
|               |                    | Luis Angoitia           |         |       |
|               |                    | Patxi Segurola          |         |       |
|               |                    | Txomin Jaka-Kortajarena |         |       |
|               |                    | Marcelino Errezola      |         |       |
|               |                    | Juan Añibarro           |         |       |
|               |                    | Erramon Ertze           |         |       |
|               |                    | Todor Iñarra            |         |       |
|               |                    | Elias Zuluaga           |         |       |
|               |                    | Daniel Ayerbe           |         |       |
|               |                    | Koldo Agirre            |         |       |

Hogeita bederatziz izen desberdin ageri dira zerrendan.

Jose Migel Barandiaranen eskutik zientzia eta erlijioa binomioaren arteko oreka intelektuala islatzen ari zen apaizgaitegi osoan, eta haren irradiazioak *Gymnasium*en bere tokitxoan izan zuen, noski. Zientzia-alorreko idazkietan nabaritzen da, gehienbat. Joera hori gaztelaniazko artikuluetan argi eta garbi ageri da. Aipatu behar da, era berean, gaztelaniazkoetan, euskal kultura eta gizarteari buruzko edukien kantitatea handia zela.

Euskara dela eta, Manuel Lekuonaren eskua ere igartzen da ekarpenetan. Ertze'tar Erramon'ek 1931ko irail-urriko zenbakian izenpetzen duen “Ezta ilgo!” artikuluan, bere tesiaren amaieran, “*Euzkerek burua jasotzea Jaungoikoak nai dau-ta*” idazten du. Esaera hori, *Kardaberaz* aldizkariaren goiburua izango da gero.

Oso lan polita egin zuen *Gymnasium*ek, Barandiarani aldizkaria argitaratzea bertan behera utzi behar zuela agindu zitzaion arte. Honela idatzi zuen Barandiaranek bere egunerokoan, 1933ko urtarrilaren azken egunean:

El Sr. Rector del Seminario nos lee una carta del Sr. Obispo D. Mateo Mújica prohibiéndonos escribir en “La Constancia” y “El Día” ¿Qué culpa tenemos nosotros de que dos periódicos católicos se hayan enzarzado en una contienda? [...] Dice en su carta que únicamente se nos permitirá escribir en revistas científicas y culturales. Y ¿dónde están esas revistas en que podamos escribir de materias religiosas? Teníamos *Gymnasium* y lo suprimió el mismo Obispo<sup>2</sup>.

2. “Jose Migel de Barandiarán. Diario Personal 1917-1936” (Barandiaran Fundazioa, 2005).

Jose Migel Barandiaranen lana oinarritzkoa da, Gasteizko Apaizgaitegian euskal kulturaren baitan burututakoa ulertzeko. Bera izan zen pertsonaiarik zentralena eta, diodan nolabait, borrokalariena. Bere indar osoa –gutxi ez zena!- jarri zuen lantegian eta berari zor zaio batez ere euskal kulturaren garapena eliz-zentro hartan, zailtasun guztien gainetik eta iparra galdu gabe. Barandiaran dugu, beraz, arabar lurraldetik Euskal Pizkunderako proiektaturiko uhinaren sortzailerik bikainena. Barandiaranen ondoan eta haren ildotik urrats sendoz zetorren beste bat, Manuel Lekuona zen.



Vitoria-Gasteizko Apaizgaitegia. Manuel Lekuona eta Jose Migel de Barandiaran izan ziren Euskal Pizkunderaren eragilerik handienak Arabako lurraldetik. (Artxiboa: Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa)

## 2.2. Manuel Lekuona

Gasteizko Apaizgaitegiko bigarren erraldoia dugu oiartzuarra, euskal kulturari dagokionez. Lekuona, Barandiaran baino gazteagoa zenez, geroago sartu zen apaizgaitegian, eta euskal kulturaren maila aberasten ahalegindu zen arabar erlijioso-zentroan, ahal izan zuen lehen unetik.

Apaizgaitegian 1916an hasi zen irakasle-lanetan. Euskara eta Euskal Literaturaren katedra zen harena, eta handik barreiatu zuen bere maisutza, apaizgaitegia betetzen zuten ehunka ikasleengan. Hala ere, garai hartan bere ikasle izandako Cecilio Agirrek 1914an jartzen du Manuel Lekuonaren maisu-lanaren hasiera, eta honela azaltzen du giro haren zergatia:

Gure aberriko apaizgaitegian ez zan euskararik erakusten, 1914ra arte. Urte ortan asi ginan euskal ikasketak Don Manuel maixu gendula. Ordurako baziran apaiz asko eta apaizgai asko euskeraz “primeran” zekitenak, euren gisara eta gogo onez ikasi zutenak. Baña Apaizgaitegiko zuzendariak ez zuten izan sekula euskera erakusteko asmorik, ezta burutik pasatu ere. Eta Gotzaitegian are gutxiago. Eskerrak kanpotik “tiroka” asi zirala!

Esandako urteko Pazko Eguna izan zan egun zoragarri txalogarri ori. Seminarioko Erretorea<sup>3</sup> etorri zan ikastaro berriari asiera ematera [...] Artean “kontestatario” itza asmatu ga-bea zan eta danok ixilik entzun genitun gure erretoreak esan zizkigunak. Don Manuel an zegoan, baña au ere ixilik [...]

Urrengo eguna, bigarren ikasaldia, eta hau Don Manuelek eman zigun [...] eta beste gauza batzuek esan zizkigun, oso besteak [...] Euskera galtzeak euskaldun nortasuna galtzen duala [...] Kristau fedea [...] izkuntza guztietan bizi dala, baña Euzkadin euskera galtzeak ez diola fedeari mesederik egiten Apaizak eta praile semolariek euskerari egin izan dizkioten kalteak, euskeraz gutxi jakin, obeto jakiteko alegiñarik egin gabeak [...]. Euskera garbizaleen aurka ez zuan ezer esan, euren alde bai: itz asko asmatu bearra ba-zegoala [...]<sup>4</sup>

Cecilio Agirreren aipamenari helduz, esan behar da 1861ean sortutako Gotzaitegian, Mateo Mujika 1928ko ekainean agertu arte, gotzain guztiak erdaldunak izan zirela. Ikus dezagun zer dioen Jose Migel Barandiaranek bere egunerokoan, Mujikaren aurreko gotzaina zen frai Zacarias Martinezen agur-egunean, 1928ko apirilaren 18an:

*Su nacionalismo exagerado (ha sido y se ha mostrado españolista oportune e importune) le ha acarreado serios disgustos y ha ocasionado algunos males a la Iglesia.*

Bide batez, esan behar da Gasteizko Agirre apaizgaitegian, 1857 inguruan, euskarazko klaseak ematen zirela, baina 1880an Apaizgaitegi Kontziliarra eraiki zenean zeharo desagertu zirela, gotzainaren aginduz<sup>5</sup>.

### 3. Kardaberaz Akademia

Lekuonak ekindako hastapen haietatik berrogeita hamazazpi urte geroago, Aita Kardaberazi eskainitako omenaldirako liburuan honela mintzatu zen Lekuona bera<sup>6</sup>.

Ba zen orduantxe Gasteizko Apaizgaitegian kultura-lanetarako gogo. Republika aurreko urteak ziran. Ikastola ofizialetan erakusten zana gain, igertzen genduen beste ainbat gauza ere ikasi bearra zegona –beste ainbat gauzetan trebatu bearra zegola, alegia- eta ezarian ezarian sortzen asi ziran privatim docenter edo deritzaten oietako zenbait ikasgo, nai zuanak nai zuana aukeratuaz, ofizial-bidetik at zerbaitetan jardun eta trebatzeko. Sortu zan Mixio-gaietako Akademiarik; sortu ideologia gaietarako Gymnasium-ik; sortu zan, baita, euskal-idazleentzako ere exercitatorium deritzaken sail bat: Kardaberaztarrak. Orixe izan zan gure Kardaberaztarren Akademiaren sorrera.

3. Roman Laspiur ez zen euskararen aldekoa izateagatik nabarmentzen.

4. “Lekuona’tar Manuel Jaunaren omenezko idazki bilduma” (Kardaberaz Bazkuna, 1977).

5. “Euskeraren aroak” (Koldo Agirre “Mikelats”. Lekuona’tar Manuel Jaunaren Omenezko idazki-bildum, 1977).

6. “Aita Kardaberaz’i Omen-aldi” (Kardaberaz Bazkuna, 1971).

Gorago ere aipatu dut 1918tik euskal gizartean izandako Eusko Ikaskuntzaren eragina. Erakundea sortu eta lau urtera, Gernikan egin zuen bere III. Kongresua –Hizkuntza eta Irakaskuntza– eta, bertan, honako proposamen hau egin zen:

1. Vatikanoak Belgika eta Kanadako hizkuntzen koofizialtasunari buruz emandako ebazpenak Euskal Herrian ere aplikatzea.
2. Edozein joera edo alderdi politikoz gainetik, euskal apaizek lan egin dezaten euskal gizartea euskaraz hezitzen eta euskal literatura haziarazten<sup>7</sup>.

Aldarrikapen hura ez zen berandutu Gasteizko Apaizgaitegira iristeko.

Manuel Lekuonak, bere ingurura biltzen zen apaizgaien indarrak aprobetxatuta, eta ikasle gazteen nahia helduz, Kardaberaztarren Akademia sortu zuen 1924ko apirilean, 70 pezetako kapitalarekin, eta, hasiera batean, teologoek bakarrik hartzen zuten parte. Eta, hastapenetik, berrogeita hamar kide baino gehiago izan zituen Akademiak.

Manuel Lekuonak azpimarratzen du erakunde akademiko haiek ikasle eta irakasle batzuen gogoz sortu zirela, behetik gora. Askotan, gainera, hierarkia eklesiastikoaren gogoaren kontra, ez baita pentsatu behar gizon haiek bide laua izan zutenik beren lantegietan barrena egiteko.

Ori bai, disziplinaz ala bear-ta, Irakasle baten mendean. Kardaberaztarrek, nire mendean sortu ziran. Bañan au ere bai: ez nik ezarrita; ikasleak berak neri beren asmoak ekarrita baizik; eta gauza, danon artean eratu [...] <sup>8</sup>.

Jakina, hautazko gaiak ziren ikasleentzat, euren espediente akademikorako baliorik ez zutenak, edo, edukitzekotan, beti bigarren mailakotzat hartuta. Gogoz ekiten zioten helburuari ikasle eta irakasleek, eta baita lanean gogor aritu ere, oztopo guztien gainetik.

Jose Mari Zamoraren hitzak dira:

Filosofiako irakasleak, gure ikastaroak zirala-ta, arduraz ebiltzazan; ordu asko galtzen genduzala ta erabaki eben “Benemeritus” gutxienez lortu bear genduala asignaturetan. Egja esan, an ibilli giñanok, gaur euskeraz ezer ba-dakigu, orduan euskeraz ikasten ta zabal-tzen jardun gendualako da; ta kementxu alegindu ginalako<sup>9</sup>.

Zein zen Kardaberaz Akademiaren asmo nagusia? Argi asko: euskal idazleak sortzea, jardunbide erlijiosoan euskaldun hezitu gisa aritu ahal izateko. Oinarrizko kristau-pentsamendutik abiatuta, euskaraz ongi idaztea zuen helburua, eta horretara mugatzen zen Akademia, beste xede apalagoen gainetik. Ebangelioa euskaraz hedatzea posible izango zuten apaizak sortzea zen, beraz, mugimendu haren jomuga, eta hamabi urtez buru-belarri ahalegindu zen horretan, harik eta Gerra Zibila piztu zen arte.

7. Eusko Ikaskuntzaren III. Kongresua: Gernika 1922. Hizkuntza eta irakaskuntza (Urrutia, Ángel de: El euskera y la Iglesia).

8. “Aita Kardaberaz'i Omen-aldi” (Kardaberaz Bazkuna, 1971).

9. Idem.

Lekuonak argitzen digun bezala, metodologia erraza zen:

Aldian bein lantxo bat, bakoitzak al zuan ondoen egiña ekarri bear zuan. Eta txandan-txandan, astiak agintzen zuan neurrian, gure batzarretan irakurri ta aztertu. Gaia bakoitzak nahi zuana, bakoitzari zerizkiona<sup>10</sup>.

Zer esanik ez, Manuel Lekuona izan zen akademiaren burua –zuzendaria–, erakundeak aldi hartan bizirik iraun zuen bitartean. Aipatu behar da, 1970 inguruan berpizte-aldia iritsi zitzaiola akademiari, Kardaberaz Bazkuna izenarekin, eta gerra aurretik ari ziren batzuei euskararen egoerarengatik interesatuta zeuden beste asko gehitu zitzaizkiela.

Egunez egun, hobekuntza eta hazkuntza igartzen zen kardaberaztarren lanean. 1935 eta 1936 urteak oparoak gertatu ziren, eta teologo zein filosofoek buru-belarri ziharduten euskararen aldeko saioan. Eta apaizgaien artean baziren beste nolabaiteko kultura-kezkak ere. Adibide gisa, 1934-35 ikasturtean, Gasteizko Apaizgaien Yakintz-Bide Batza. Asociación de Orientaciones Culturales de los Seminaristas de Vitoria izeneko elkarte sortu zuten<sup>11</sup>. Batzaren helburua ikasleen heziketa intelektualari eragitea zen, zientzia metodologia positiboetara bultzatuz, batez ere gai erlijiosoak, natura-zientzia eta arlo sozialen gaineko ikerketa eta galdeketen bitartez, betiere eliza-zientzietan eduki zezaketen zerikusia kontuan izanda.

Urte pare bat lehenago, apaizgai gazteago batzuk –filosofia ikasten zihardutenak– ausartagoak izan ziren, eta aurrerago jo zuten. “Aurrera Beti” lelopean, “Kardaberaz Batzarreko irugarren maila” zeritzan talde bat osatzeari ekin zioten. Asmoa, Lekuonaren Kardaberaz Akademiari indar berria ematea zen. Talde hartan ari zen Jose Maria Arizmendiarieta eta hark idatzi zituen honako hitzok, 1933ko azaroaren 1ean:

Euzkadiko apaizok beste aberri eta tokietakuak baño nagiaguak, alperraguak? Gure ondorengiak, gu Euzkadiko apaizok nagitzat botatzea ez dot uste zueri bere atsegin izango jatzuenik. Beste aberrietakuak baño gtxiago generala entzuterik ere ez dogu gura. Baña gure amak erakutsiriko euzkera, izkuntza berezi au, berbiztuten, apaintzen eta zabalduten saiatzen ez pagera, beñobein entzungo da beste errietakoak baño gtxiago eta nagiagoak izan generala.

[...] Beste aberrietako apaizak baño alperraguak izateagatik ardura ezpadeusku, besterik-eztako izkuntza onen edertasunak ikara eragiten ez badeusku, geure amaren eraileak izan generala gure ondorengiak izateak ikaratzen ezpagaitu bere, naita-naieza Eleixa Amak agintzen deuskulako ikasi bearko dogu euzkera<sup>12</sup>.

Idazki horretan Arizmendiarietak erabiltzen dituen kontzeptu eta ideia batzuk, 1922an, Eusko Ikaskuntzaren III. Kongresuan, “Euskera e Iglesia” titulupean Angel Urrutia apaiz, erlijioso eta misiolariak eskainitako hitzaldi mamitsutik daude hartuta. Honako hauek ere bai:

10. Idem.

11. “Historia del Seminario Diocesano de Vitoria. Volúmen 1” (Andres Ibañez Arana. ESET, 2005).

12. “Jose Maria Arizmendiarietaren oharrik” “Arizmendiarietaren Dokumentu Funtza”. ([www.eusko-media.org](http://www.eusko-media.org)).

Baten batek esango deusta Euzkadiko erririk erdietan erdera egiten dala [...] Eta zer? Belgike deritxogun lurraldean izkuntza bi egiten dira; [...] eta Benedicto XV.nak idazti bat egin eutson Mercier Belgijeko lenengo Jankordunari eta bertan iñotsen: Ondo jakin begie apaizak lurralde aretan gizonak egiten daben izkuntza; [...] baita beste orretxen beste agindu eutson Benjin Kanadako Jankordunari. Letran eta Trentoko Batzarretako agintzak ekarri geinkez; baña gaurko larregi da-ta, beste baterako lagako doguz.

Osatzear zegoen Kardaberaz Batzarren Hirugarren Maila izeneko bere ikas-kideen aurrean irakurtzeko prestatutako hausnarketa hura Arizmendiarietak honela amaitu zuen:

Mixiolariei mixiñuak emun bihar dituen lurraldeetako izkuntza ondo ikasteko lenengo agintzen jakue. Eta auxe izaten da euren lenengo zeregiña. Euzkotarrak, indiar, txinar edo balzak beste ez ete dabe merezi? [...] Euzkerak egunen baten bere jatortasunagaz, onbidetasunagaz eta edertasunagaz apurtu eta uxatuko al ditu euzkotarren biotz-begien aurrean dabiltzazan odei eta lañuak? Elduko al da egunen bat, dagokion toki goitiar, jagi eta egokia euzkerari euzko semeok geure biotzetan eta geure errian emungo dautseguna.

“Aurrera Beti” lelopeko Kardaberaz Batzarreko irugarren maila taldeak 1933ko azaroaren 16an egin zuen lehen bilera formalaren ostean, arautegi bat prestatzeari lotu zitzaizkion, apaizgaitegiko agintariei aurkezteko. Idazki haren egileak Anastasio Albisu, Jose Maria Arizmendiarieta, Serafin Esnaola, Ramon Narbaiza eta Alexander Mendizabal izan ziren. Dena den, Arizmendiarieta da lanaren pisurik handiena hartu zuena.

Euskaltzale Bazkun bat sortzea erabaki genduan. Apaiz garenean erritarrei Kristoren irakatsiak ganoraz azaldu ta irakasteko euskera ikasi ta-al-bada bestiei irakatsi. Orixe dozu gure elburua, araudiaren lln. atalgia diñoanez<sup>13</sup>.

Arautegia idazteari ekin ziotenean kontuan eduki zuten, noski, apaizgaitegiko **–jaupaltegi** diote eurek– arautegia bera, arazorik ez izateko. Manuel Lekuonarengana jo zuten geroago, eta aurrerabideak eman zizkien beren asmoarekin aurrera egin zezaten. Baita aholku batzuk iradoki ere, apaizgaitegiko agintarien balizko eragozpenak gaintitzeko.

Esandako urteko azaroaren 30ean, lehen batzar formala egin zuen talde hark, Kardaberaz hirugarren ikasle-maila berpizteko asmoz. Aurreneko dei hartara bildutakoak honako hauek izan ziren, izen-abizenak adierazteko erabili zuten moduan hartuta: Arizmendi'tar Joseba Mirena; Barandiaran'tar Mikel; Bera-sarte'tar Iñaki; Etxebeste'tar Perdinanda; Esnaola'tar Serapin; Mendizabal'dar Alexander; Narbaiza'tar Erramun; Raymond'dar Joseba; Zamora'tar Joseba Mirena; Zubillaga'tar Jenar; eta Zuloaga'tar Txomin". Bilera hartara ezin joana adierazi zuen Albizu'tar Anastasik.

Bozketa egin zen *Bazkintza-Artezkaria* edo zuzendaritza-batzordea hautatzeko, eta honela geratu zen: lehendakariordea, Arizmendiarieta; aldizkariaren zu-

13. “Jose Maria Arizmendiarietaren oharra” “Arizmendiarietaren Dokumentu Funtza”. (www.eusko-media.org)

zendaria, Esnaola; idazkaria, Narbaiza; kontalari-diruzaina, Mendizabal. Lehendakari natoa Manuel Lekuona zen<sup>14</sup>.

Arautegiaren arabera, taldea –euskararen inguruko oinarrizko betebeharez gain– beste honetara ere konprometitzen zen: “Al badogu urtian euzkel-jai bat eratu Apaiztegian, euzkel-elertzale, olerkari edo euzkeldun ospetsu baten omenez. Eta euzkel-usaiñ apur bat emon beste jaietara ere”.

Horren ondorioz, Santa Katalina filosofoen zaindaria denez gero, azaroaren 25ean ospatzen zen jaietara, eta aurrerantzean arautegia euskaraz ere publikatzera bultzatu zuten. Eta 1935eko Gabon-jaietarako antzerki, dantzak eta folkloreko erakustaldiak programatu ziren, “miresmen eta harridura”<sup>15</sup> piztu zutenak.

### 3.1. Yakintz-Bide Batza

Aipatu den bezala, Manuel Lekuonaren inguruan sortu zen Kardaberaz Akademia, eta, haren itzalera, 1934-35 ikasturtean, Yakintz-Bide Batza elkarte berria jaiotzen zen, betiere teologoentzat irekia. Urte pare bat lehenago hasi ziren prestaketekin Koldo Agirre eta Txomin Irigoien. Eta Eskarzaga errektorearen baimena lortu zutenean, hogeita bost bat kidek osatu zuten bazkidetza, hirugarren mailako kideei dagokienez<sup>16</sup>. Batza berriaren egitura, gutxi gorabehera, filosofoentzat deskribatu denaren bezalakoa zen. Haien asmoa euskal kulturaren beste alderdi batzuk ere ikastea zen, euskaraz gain.

Anastasio Arrinda, Yakintz-Bide Batzaren bultzagileetariko bat izan zenak dioenez:

1934-35 ikastaroan beste talde zabalago bat sortu genuen. On Jose Migel Barandiaranek (Apaizgaitegiko errektore-ordea) bazekien gauza auen berri. Euskera eta Historia On Manuel Lekuonaren esku (an izan zitun bere sustraia Mañarikua jaunak) eta beste bi gaiak On Jose Migel Barandiaranenetan<sup>17</sup>.

Prozesu haren ardatzean, lehenago kardaberaztarrek kardaberaztar kutsua edukitzeari utzi ote zioten esatea ez da erraza. Bilakaera edo hedapenaren urratsak nahas samar eman zirelakoan nago, nolana ere, baldin eta honako bi aitoren hauei kasu egiten bazaie behintzat: “1934ko apirilaren 29. “Kardaberaztarren” azkeneko batzara”<sup>18</sup>. Eta bi urte geroagokoa, hain zuzen 1936ko urtarrilaren 30ekoa: “Arruti jaunak, noiztik geran “Kardaberaztarren” galdetu zuan”<sup>19</sup>.

Dena den, prozesua garbia izan zen ala ez bigarren mailako galdetara litzateke. Inportanteena, apaizgaitegian euskalgintzan ari ziren guztien baitan Kardaberaztarren espiritua bazela da.

14. Bilerako akta.

15. Idem.

16. “Kardaberaztarren.– Jakingarriak” (Euskerazaintza. XLII zenbakia. 1998).

17. Idem.

18. “Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki bilduma” (Kardaberaz Bazkuna. 1977).

19. “Kardaberaztarren.– Jakingarriak” (Euskerazaintza. XLII zenbakia. 1998).

Yakintz-Bide Batzaren ikasturte hartako bazkideak 1934ko azaroan hasi ziren biltzen, eta aurrerantzean egingo ziren betebeharrak zehazteari ekin zioten: Fausto Arozenaren irakurgaiak euskaratzea, Orixeren lanak bizkaieraz jartzea, jakintza-gaietako hitzak sortzea, Manuel Lekuonak bildutako bertso zaharrak fitxetan jartzea, eta abar. Horrezaz gain, bazkideen kuotekin idaz-sariketaren bat ere eratu behar zelakoan zeuden..., teologoen zat bakarrik ala filosofoen zat ere ireki behar ote zen oso argi ez zuten arren.

Erabakiak oso urruti ez zituela eraman geroago ikusiko badugu ere, aipatu behar da 1934ko azaroan bertan Aurrera Betiko lagunek urrats berri bat eman zutela: *“Kardaberaz batzarraren berri eman zigun zuzendari-ordezkoak. Eta eztabaida ondoren, guziok izena ematea erabaki genduan”*<sup>20</sup>.

Deliberamendua Batzaren egituran nola plasmatu zen edo, areago, inoiz errealitate izatera iritsi ote zen ez dago argi. Bi taldeen arteko tirabira dela-eta, esan liteke inoiz ez zirela egiazko lankidetzan aritu. Izan ere, Yakintz-Bide Batzaren eta beren egitasmoa aurrera eraman nahian ari ziren Aurrera Betiko filosofoen artean ezinezona piztu zen. Bi aldeek Kardaberaz izena erabiltzen zuten, Manuel Lekuona ardatz zeukatena, eta Lekuonak nahikoa zuen bietara soseguzko mezuak bidaltzearekin.

Sortze-dataren arabera filosofoek teologoei hartu zieten abantailaz baliatuz, urrats sendoagoak eman zituzten, adibidez, aldizkaria martxan jartzeko eta kudeatzeko orduan. Horrek diferentziak markatu zituen, eta, horrela, 1935eko maiatzaren 31ko bileran, Yakintz-Bide Batzakoek honako hau erabaki zuten:

Urrena aldizkingia izan zan itz bide: euskeraz ta erderaz bi aldizkingi atera bear zirala erabaki zan Yakintz-Bideko Batzar Nagusian eta euskal aldizkingiak oraingo filosofoen Kardaberaz izan bear zuala ganera. Gai oneri buruz filosofoen erantzunik etzala oraindik artu esan zuan idazkari jaunak.

Hau da, Aurrera Betikoekin artean adostu gabe, egintzat ematen zuten, ordurako filosofoak publikatzen ari ziren aldizkaria erdibana erabiltzea. Une hartan Batzako idazkaria Jokin Arostegi zen.

Bi taldeen artean, beraz, ez zegoen komunikazio arinik, nahiz eta teorian bien buruan Lekuona jauna zegoen. Kardaberaz deitura erabili gabe, Yakintz-Bide Batzako Euskaltzaleen izenean eskutitz bat bidali zion taldearen idazkariak Aurrera Betiri 1935eko urriaren 21ean. Eta bertan argibide batzuk ematen zaizkigu, batzuen eta besteen jokaerak ulertzeko. Eskutitza Arizmendiari bidali zion Jokin Arostegik:

[...] Zuen Araudia eta gurea ez daude muturka ezta elkar joka ere, ta zuen araudia betetzen duanari etzaio ia ezertxo ere kostako gurea betetzea. Baña euzkera ta Euzkadiaren aurrerapenerako on edo komeni ote da gure sailak edo Batzak izatea? Baietz deritzat.

[...] Asociación de Orientaciones Culturales edo Yakintz-Bide Batza guk orain bi urte egiña da [...] Euskal-erriko Yakintza apaiz eta apaiz-gaien artean zabaltzeko egin genduan. Apaiz eginda Apaizgaitegitik urtetan direnean bazkide irauten dute. Batza aundi au zatiatan banatzen da; batzuek Edestia jotzen dute, besteak Etnografia, guk euskerari jo genion, ta Batza onen zati bat egiten genduan guk oraiñ arteko teologo euskaldunak.

20. “Aurrera Beti”koen akta, 1934ko azaroaren 2.



[...] Batza onek eusko usai andia du; begira Araudiaren Xlign. Atalak nola dion: "Azterketa-zelaia batez ere Euskal-erria izango da" Ta era onetan zerbait egin degu. Historia Vasca, Etnografía, Lingüística eta abarri dagozkien galderaldiak ateriak ditugu ta baita tokiko askok erantzunak artuak ere.

[...] Eusko ta euskal usai goxo ori eduki ote lezake Batza orrek euskaldunak tartean ez bagina? Ez orixe! Orduan Yakintz-Bide Batza beste batzuen mendean legoke ta beste oien mendean eziñ eduki lezake ez eusko usairik ta ainbat gutxigo euskal usairik. Baña usai ori Batz orrerri emateko guk euskeltzaleen izenarekin tartean egon bear.

[...] Zuen araudia gogor xamarra da; gurea arinxegoa; beaz, norbaiti gerta lezaiokoe zuen araudia gogortxo iruditzen ta guregana etorri nai izatea. Beaz, asko eman ezin duanari ez al zaio sarrerik utzi bear euskel-barrutian?

[...] Zuetako batzuen ustez emendik bi edo iru urtera gure Batzak il bear duela nik nire lagunei esan dietenean... "ezetz erantzun didate". Oba da, nion nik, "bizitz negargarri bat baño eriotz ospatsua". Baña guztia alperrik, bizitz mardula ematen aleginduko gerala erantzun didate.

[...] Beaz, badakizute! Auxe degu Yakintz-Bide Batza! Maite degu euskerazko bere zatia! Ta orain da gero bizi ditezen on derizkiogun bideak artzera goaz.

Eskutitza hartuta, filosofoen Aurrera betiko arduradunak ez ziren geldi geratu. Eta hausnarketa sakonari lotu zitzaizkion. Bi taldeei gehien axola ziena, alde batetik, bakoitzeko bazkideen kohesioa; eta bestetik, aldizkariaren gaineko kontrola. Eskutitza jaso eta astebetera, urriaren 28an, Batzakoek beste bilera bat izan zuten, eta, bertara, Aurrera Betiko orduko idazkaria agertu zen, Jose Mari Arizmendiarieta, zuzeneko informazioa jasotzera eta beraien aldetik ere zehaztapenak eskaintzera.

Bi taldeen arduradunak ez zeuden oso konbentzita indarrak elkarri batu behar zizkioten ala ez. Eta bestearekiko mesfidati ageri ziren behin baino gehiagotan. Batzakoek urriaren 24ko aktan<sup>21</sup> irakurtzen da: "Aldizkingia ere izan zan itz bide. "Kardaberaz" aldizkingia, illabetetik bein argitaratzea gutxitxo izango zala ta erdel aldizkingiarekin batuta lanak argitaratzea ontzat artu zuten bazkide guztiak".

Hori ez zen, behintzat, lehen ikusi dugun bezala, Aurrera Betikoei adierazi zitzaien. Haiiek, beren aldetik, oso zorrotz egon ziren planteamenduetan:

Guk ala arek bizirik irautea? Bizirik, bai! [...] Euskerarentzat arek bizirik irautea obe badogu, irauin dagiela ta lagundu dagoen. Guk orañarte egin izan dogun baño gehiago eurak egitekotan guazzen euren gana. Urte bitan guk egin dogun aña egingo al dabe?

[...] Arroak garela? Arrokeri apur bat on yaku. Ezertarako ezteela uste daben gizonak ezeri eztautso eldu edo ekin [...] eta ekin ezik ezin egin, ezer ezin burutu. Beste inork egin eztaben beste egin dogu orañarte ta au iñok ezin ukatu. Jarraitu daigun orañarte aurrerakoan be. Laguntasun eske yatorkunari lagundu. Zatitu edo eskuratu edo menperatu nairik dabilenari iges. Iges eginda ezer lortu ezik arpegia emun!

[...] Y.B.B.ko orrek laguntasun eske yatorkuz ala gu nundik azpiratu dabiliz?

[...] Batasunik ez dabe nai; bat egitea baño. Parroki askok alkarrekin bat egiteko Elizbarruti bat ez al dabe osatzen? Gotzañaren agindua baktokak bere sailtxoan bete daziezala.

21. "Kardaberaztarrak.– Jakingarriak" (Euskerazaintza. XLII zenbakia. 1998).

Gitxiri errezagoko bete-arazoko dautsee agintariak. Pilo aundiztea gatxago dogu ori. Aldizkingiarena, ziluarena[...]

[...] Yakintz-Bide batza euzkeltzaletzia nai dabe? Guzurra! Kardaberaz saloi indartu barik be euzkeltzaleitu deike. Beste saletan gu euzkeltzaliok egotea ezta naiko?<sup>22</sup>.

Ikusten denez, euskaltzaleon arteko giroa ez zen oso baketsua.

### 3.2. Kardaberaz Aldizkaria

“Aurrera beti”ko Kardaberazen Arautegiko III. atalean deskribatzen da aldizkari **–aldizkingia**, zioten– baten beharra eta konpromisoa, asmoa errealitate bihurtzeko. Bi hilabetean behin argitaratuko zen, eta euren arteko batzarrean irakurritako lanetatik egokientzat hartutakoak publikatuko ziren, gaiak edozein motatakoak zirelarik ere.

“Aldizkingi ori Jakintzako ikasle guzietan salduko jake” zioen atal bereko 8. artikuluan. Borondatezko aitorpena izan zen gehiago, errealitateak markatu zuena baino. Hala ere, kardaberaztarrek zorrotasun guztiarekin eraman zuten aurrera aldizkariaren proiektua.

Aldizkariak *–Kardaberaz* izenarekin– zuzendari bat zeukan. Aurrena, Serrafin Esnaola hautatu zuten, gorago ikusi den bezala. Eta argitalpen-batzorde baten bitartez erabakitzen ziren argitaratzeko gaiak, eta baita kolaboratzaileen zerrenda ere. Teorian, hiru graduetako ikasleek zuten eskubidea aldizkarian idazteko. Hirugarren graduko ikaslez osatutako argitalpen-batzordeak jasotzen zituen idazlanak. Sinadurarik gabe iritsi behar zuten. Lanari gutxieneko sendotasuna eskatzen zitzaion, eta zerikusia izan behar zuen prestakuntza orokorreko gaiekin. Argitalpen-batzordeko kide bakoitzak irakurri behar zuen lana, eta ezkutuko botoarekin adierazi behar zuen hura argitaratzearen aldekoa zen ala ez. Boto gehien jasotzen zutenak publikatzen ziren.

Egitasmoarekin maiteminduta zeuden ikasle gazte haiek zer-nolako giroarekin egin zuten topo ideia egiteko, egokia da 1935ean apaizgaitegian argitaratu zen liburu baten honako pasartetxo hau irakurtzea. Orduko errektorea zen Eduardo Eskarzaga Solaunek apaiztu zeneko XXV. urtemuga bete zuelako argitaratu zen liburua. Mateo Mujika Gasteizko gotzainak idatzi zion hitzaurrea argitalpenari. Honela hasten zen:

Aunque no queremos que nuestros amadísimos seminaristas se dediquen a escribir, minus opportune et plus aequo, mientras pese sobre ellos el grave deber de entregarse con ahinco a los estudios de su carrera sacerdotal, nos ha parecido siempre bien que aprovechando alguna solemnidad o las vacaciones del estío, presentaran algún trabajo escrito, fruto de sus estudios y de sus observaciones y muestra de sus aficiones científico-sociales-literarias.

Garbi dago ez zuela hierarkiak laket ikasleek denbora alferrik galtzea, beren karrerako ikasketetatik desbidera zitzaketen ekintzetan. Horregatik, eta Kardabe-

22. “Jose Maria Arizmendiarietaren oharra” “Arizmendiarietaren Dokumentu Funtza”. ([www.eusko-media.org](http://www.eusko-media.org)).

23. 1933ko abenduaren 12ko akta.

raz Bazkunaren arautegia apaizgaitegiko arauetara egokitu behar zutenez gero, ez da harritzekoa, Aurrera Betiko kardaberaztarren bigarren aktan honela irakurtzea:

Gabonak gañian dirala-eta, “euzkaltzaleok” zerbait gertatzen asi bear gerala esan zigun Lendakari-ordekuak: Aldizkingi bat argitaratu bear gendukela; Lizardiren omenez zerbait egin eta baita euzkal antzerkiren batzuk antzeztu ere<sup>23</sup>.

Aurrerantzean, Aurrera Betiko kardaberaztarren zuzendaritza-batzordeak izango zituen bileretan, aldizkarian argitaratzeko aurrikusitako lanak irakurtzen hasiko zen hura, eta baita zegozkien lagunen kritikak jasotzen ere.

Yakintz-Bide Batza eta Aurrera Betikoen arteko auziaren harira, bi aldeek ez bide zuten amore emateko gogorik azaltzen. Honela adierazten zion Jokin Arostegi Batzako idazkariak Arizmendiari, 1935eko urriaren 21ean:

Aldizkingiarekin zer egin bear dezuten, arren argi ta garbi esan. Gauz ok guztiak atzo itzez esateko asmoa nuan, baña alde batetik gauzak obeto oldostu bear nituan, ta bestetik biotza zauritua neukan ongi itzegiteko. Orregatik lasai ta patxara osoan egin nai izan dizutet eskutitz au. Ez al diozute arrera txarrik egingo. Eskutitz onek erantzunik merezi badu, al bait lenbailen erantzun, ta erantzunik eman nai ez badiozute, andik edo emendik arren adierazi zadazute<sup>24</sup>.

Aurreko eskabidea jasotzen zutenerako, Aurrera Betikoek erabakia zuten *Kardaberaz* aldizkariaren argitarapenean toki ematea Batzakoei, baina lehentasunik eman gabe. Hori erabakitzen zuten egunean –urriaren 19an– honako beste hau ere onartu zuten: “Yakintz-Bide Batza”koekin aurrez aurre gaudela-ta, nola jokatu bear geunken-edo ere aitatu zan”.

Jose Mari Arizmendiari Batzakoei hil haren 28an egin zien bisitan zer planteamendu egin zien ez dugu jaso ahal izan, baina handik zenbait hilabetera –1936ko urtarrilaren 30ean– honako hau jaso zuten aktan:

Aldizkingia zan itz-bide. “Aurrera Beti”koak beren aldizkingian nola toki eman nai ziguten adierazi zan eta ontzat ematea ote zan edo galdetu zan. Eta anaitasuna begien aurrean zala berealaxe baiezkkoa artu zan. Orduan Batzako lan biltzaleei eskatu zitzaizen lanak aukeratu zezatela azkar, zuzendu bearrekoak zuzentzeko esanda.

Badirudi, beraz, desenkontruen istorioa amaitutzat ematen zutela eta elkarkidetzarako prest agertzen zirela bi aldeak. Hala izan al zen? Gero ikusiko dugun bezala, esan daiteke baietz; elkarkidetzaren osoa izan ez bazen ere, aldizkariaren arduraz txandatzea behintzat adostu zuten. Jose Mari Zamora Aurre Betikoen kide izan zen 1933ko lehen unetik, eta haren hitzak dira:

Illeroko eginbearra, bakotsak lan bat agertu; guztion artean aztertu ta gero bik emon euren erabagia, ia zeintzuk egoki ziran gure aldizkingian argitaratzeko. Gero guztion artean argitaratu lenengo gelatinan eta gero multikopia baten.

Bederatzi aldizkingi argitaratu ziran urte orreitan<sup>25</sup>.

24. “Jose Maria Arizmendiariaren oharra” “Arizmendiariaren Dokumentu Funtsa” ([www.eusko-media.org](http://www.eusko-media.org)).

25. “Aita Kardaberaz”i Omen-aldi” (Kardaberaz Bazkuna. 1971).

### **Karkaberaz: bederatzi zenbaki**

Bederatzi zenbaki argitaratu ziren, beraz, eta gatozen nondik norakoak ikustera.

Aurrera Betikoen arteko bigarren batzarreko aktan –1933ko abenduaren 12koan– zer irakur daitekeen ikusi dugu lehen. Eta aitor daiteke taldekideek gogoz heldu ziotela lanari, euren zuzendariordeak agindu bezala. Eta denek Lizardi zuten gogoan.

Xabier Agirre “Lizardi” euskal pizkundearen irudi erraldoia 1933ko martxoaren 12an hil zen. Aurrera Betikoen Arizmendiarietaren proposamena ontzat eman zuten, eta argitaratu zen zenbakia.

Lehen zenbaki haren parterik garrantzitsuena “Lizardi”ri eskaini zioten, baina baziren bestelako gai batzuk ere. Gelatinan dago inprimatuta eta ez darama ezelako zehaztasunik lanen egileak identifikatzeko. Dena den, Aurrera Betikoen bileretan irakurritako gaien arabera, badakigu Arizmendiarietak izan zuela oinarritzko protagonismoa zenbaki hartan, eta beste lan batzuk Anakabe, Etxebarria eta Albisurenak direla esan daiteke. 15'5 x 21'5 zentimetroko neurrietan egina, azala eta kontrazalaz gain, beste hogeita sei orrialdek osatzen dute lehen zenbaki hura.

“Agur Jaunak” titulupeko lehen artikulua aldizkariaren zergatia eskaintzen zuen:

Egunen batean gure elizan eta elizkizunetan euskera lasai eta egoki erabili al izateko, gaurtik bertatik gerta zaitzela. Orixe da elizak eskatzen dizuna [...]Ta orretarako gaurtik bertatik euskeraz itz egin, euskeraz irakurri, euskeraz oldostu, euskeraz idatzi. Gure aldizkingi koxkor onek bestetarako indarrak ez badu ere, euskal irakurzaletzeko ainbat izango du kardaberaztarren artean. Lizardigaz diardu lenengo lanak [...] Gañontzeko lanak gabon gaiak darabilzkite, ez bait zaigu garai onetan egun alaiak izaki ta jakintza gai legor eta astunak erabiltzea egoki irudi [...] Irakurle: Josu-Aurra gabon gau ona deizula eta Lizardik Josu-Aurragandik eusko maitasun sendoa iritsi dezaizula.



“Lizardi eta euzko elerti edestia” da zenbakiaren artikulua nagusia, eta Arizmendiarietaren lumatik atera zen. Hamaika orrialdetan idatzi zuen barinagatarrak bere ekarpena aldizkarian. Aurretik, arautegiaren arabera, Aurrera Betikoen batzarretik igaro zen Arizmendiarietaren lana.

“Gabon Eguna” zen hirugarren artikulua. Egun horretan umeak herrietan eskean nola ibiltzen ziren deskribatzen du, baita abestiak eskaini ere. Amaitzen du ohar batekin: “Irakurle: aurtengoz goi-aginduz gure erriko mutikoen abesti goxuak entzuten atsegini ez degu izango. Ez bait degu aruntz juaterik”.

Gainerako lanak ere erabat Gabon-giroarekin lotuta ageri dira: “Gabon abestiak”, “Jesusen Jaiotza”, “Nere erriko otura bat”, “Olentzaro abestiak”.

*Kardaberaz* lehen zenbakiak ez darama datarik. Nolanahi ere, esan liteke 1933ko abendukoa dela. Ordurako, Aurrera Betikoek lanean bi hilabete zeramatzaten.

“Azkenez, aldizkingian agertu bihar diran lanak irakurri zituen Esnaola’tar Serapin eta Mendizabal’dar Alexanderek”<sup>26</sup>. Zenbait egun geroago: “Zenbat aldizkingi argitaratu bihar ziran...Bazkidiok ere bestiak bezala ordaindu bear gendula... ta alako batzuk erabaki genduzan”<sup>27</sup>. Eta urtea amaitu aitzin: “Aldizkingi-zuzendariak gabonetan argitaratutako aldizkingi gora-berak azaldu zituan”.

Eskuz eginiko marrazki batzuek apaintzen dituzte aldizkariko orriak. Marrazkilaria Jose Maria Arizmendiarieta dela dio Julen Arexolaleibak. NI-NEU sinadurapean agertzen dira<sup>28</sup>.

Gabonetarako aldizkingi bat argitaltzea bururatu yakun. Bear genduzan baimenak eskatu ta 106 ieki atera genduzan ta gabon egunez saldu. Ke eta auts artian igaro genduzan, estu ta larri, iru edo lau egun. Ikazkinak baño kokots beltzaguakin irteten gintzazan sotanuetatik. Lan ta neke ta abar, be, argitaldu egin genduan behintzat<sup>29</sup>.

Hurrengo zenbakiei begira, gaietan sakondu behar zutelakoan zeuden Aurrera betiko “Bazkintza Artezkari”koak, eta horrela islatu zuten euren arteko bileretan: “Al izan ezkeru Yakintza-gayak idaztia obeto izango litzakela esan zuan Arizmendik”<sup>30</sup>.

Noiz argitaratu zen bigarren zenbakia? Hori ere ez dakigu, zehatz-mehatz, izan ere, aurrena bezala, datarik gabe agertu zen bigarren zenbakia, Jon Arana “Loramendi” olerkariari eskainia. Loramendi 1933ko martxoaren 23an hil zen. Aurrera Betikoen dokumentuak aztertu behar dira aldizkariaren prozesua nondik zihoan antzemateko. Horrela, akta batean hau irakurtzen dugu:

Igaro dan urtean gure Bazkunak euskera-alde zer egin duan aztertu gendun. Edozein egin-kizunetan ere astia izatea omen da gogorrena, zallena. Eta guri orixe gertatu zaigu. Aurrengo 10 ilabetiak utsean jun zitzaizkigun. Motel jokatu degu<sup>31</sup>.

Baieztapen horrek adierazten du 1934 –ordura arte, behintzat– idor samarra izan zitzaiela. Pentsatu behar al da bigarren zenbakia ez zela tarte horretan argitaratu? Hurrengo zenbakiei dagokien kronologiari begira, uste dut ezetz. Zenbaki honetan ageri den azken idazlanaren arabera –“Euzkadiko oitura zar bat”–, bigarren ekarpena 1934ko otsailerako prestatu zutela iruditzen zait, ezen aipatu lan horrek Santa Agataren inguruko berriak ematen ditu, abestiaren zenbait estrofarekin batera.

Bigarren zenbakiak berrikuntzak ekarri zituen. Alde batetik, aurrealdean esatera bat ageri zen, *Kardaberaz* izenaren azpian: “Euzkereak burua jasotea nai du

26 “Aurrera Beti”koen akta, 1933ko abenduaren 14a.

27. “Aurrera Beti”koen akta, 1933ko abenduaren 22a.

28. “Don Jose Maria Arizmendiarieta eta euskara” (argitaragabea) (Julen Arexolaleiba. 1991)

29. “Jose Maria Arizmendiarietaren oharra” “Arizmendiarietaren Dokumentu Funtza”. ([www.eusko-media.org](http://www.eusko-media.org))

30. “Aurrera Beti”koen akta, 1934ko urtarrilaren 4a.

31. “Aurrera Beti”koen akta, 1934ko azaroaren 29a.

Jaungoikuak”<sup>32</sup>. Azken orriko marrazkiaren behealdean “Ekin eta Jarra(i)tu” irakurtzen da, Euskaltzaindiaren “Ekin eta Jarrai”ren harira, nonbait. Arizmendiarrietaren marrazkiak osagarri gisa ageri dira.

Eta edukiari dagokionez? Esanda geratu den moduan, Loramendi olerkariari eskaini zion, 28 orrialde, eta portada eta kontraportada zeuzkanak. Arizmendiarrietaren “Loramendi” artikulua zortzi orrialde eta erdi hartzen ditu, egilearen beraren marrazki batekin. “Lenakuban Lizarditzaz zerbait esan geban; gaur Loramenditzaz mintzatuko nayatzu”. Eta gainerako artikuluetarako –“Giz-arazuak”, “Eusko Jolasak”, “Bartolo Perroken. Ipuina”, “Askatasuna” eta goian aipatutako “Euzkadiko oitura zar bat”– identifikatu ahal izan ditudanei dagokionez, Mikel Barandiaran, Serafin Esnaola eta Arizmendiarrieta bera aritu ziren.

Eta garai hartan Aurrera Betikoen zuzendariordea zen Arizmendiarrietak bere idaz-oharretan ongi zehaztua utzi zuenez, lehen eta bigarren zenbakietako diru-kontuekin estu samar ibili ziren. Aurrenarekin 11’30 pezeta irabazi zituzten, baina bigarrenak 13’25 pezetako galera utzi zien. Biak gelatinako sistemarekin ekoiztu ziren.

Hirugarren zenbakiarekin ere bide beretik segitu zuten eta Lekuona’tar Imanol Jaunari eskaini zioten Aurrera Betikoek. Beste berrikuntza bat zekarren, aurreko zenbakiaren “Ekin ta Jarratu”ren orde. Bazkunak zigilu bat enkargatu ondoren, harekin apaindu zuten kontrazala. “Kardaberaz Bazkuna. Aurrera Beti. Ikasi ta zabaldu” irakurtzen da zigiluan. Eta ohiko marrazkiek apaintzen dute zenbakia.

Eskaintza gisa, honela hasten zen hirugarren zenbakia:

Aurrera Betiko kardaberaztar Lekuona’tar Imanol, gure irakasle maiteari biotz-biotzez,

TORI  
Aitarentzat semeak  
Lore-pil mardorik!  
Eskuko au... norentzat?  
Zuri zor guk... Tori!

Edukiaren aldetik, esan daiteke jakintzazko gai unibertsalagoak erabili zituztela. Ramon Narbaiza, Alexander Mendizabal, Joseba Azpitarte, Felix Etxebarria, Fernando Etxebeste, Jose Maria Arizmendiarrieta dira lanen balizko egileak.

Gaiak: “Egunabarra” (ipaina), “Uzkur-zale”, “Eusko Elea”, “Josu Jaupari” (frantsesetik itzuliak), “Biotz-biotzez, zorion” (olerkia), “Argi, Katarin Done” (olerkia), “Uzkurtz-edestia”, “Josu jauna ta Kepa deuna” (lapurteratik bizkaierarako moldaketa), “Andrazkoa ta diabrua burrukan”, “Eleiza ta langilea”, “Eri sinestiak”. Luzera, berriz, hogeita hamar orrialde, eta azala eta kontrazala. Noizkoa da argitalpena? Azaroaren 25ean ospatzen den filosofoen zaindariari eskainitako olerkiak arrastorik ematen al digu?

Laugarren zenbakian salto eman zen gelatinatik makinaz idatzi eta multikiopiaz ateratzeraino. Bustinza’tar Ebaristo “Kirikiño”ri eskaini zitzaion eta artikulua nagusia Arizmendiarrietarena da. Honela dio bere hausnarketan:

---

32. Gorago ikusi dugun bezala, 1931ko irail-urriko Gymnasium aldizkarian azaldu zen esaera hori Ramon Ertzeren lumatik. Kardaberazena berarena da, sortzez: “Askoren animak salbatzeko, Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du”.

Ipoinarija da Kirikiño; edozelakua ez. Euzkotarra uko eta euren edar-egarrija ito-nata atzerri iturrietara duaz; edar-bila atzerri barrutijetan ziar dabiltz. Gure elerti barrutijetan elbitz igerlatza besterik ez? Euzkera laga ta erderara; etxeko ezertxu be etxaku atsegin eta matagarrri. Eztazagunik zelan matatu? Ezagutza da mate-iturburua [...] Guk badoguz geure irudijak. Gure elertilarajak, be, ba-dabe irudimena. Kirikiñok be, ba, zorrotza ta bizija, ala be.

Zenbaki hartan ere azaltzen dira lehen aldiz Aurrera Betiko bazkideen izenak, hau da, hirugarren mailako nukleo hartan euren lanekin maiztasun handiz esku hartzen zutenei dagozkienak. Euren grafia errespetatuz hauexek ditugu: Albisu'tar Anas-tasi, Anakabe'tar Kepa, Arizmendi'tar Joxe Mari, Azpitarte'tar Joseba, Etxebarria'tar Peliken, Esnaola'tar Serapin, Gangoiti'tar Marzelo, Gorostidi'tar Kepa, Mendizabal'dar Alexander, Narbaiza'tar Erramon, Oyartzabal'dar Andoni, Zamora'tar Joseba Mirena, Zubillaga'tar Genar, Zuloaga'tar Domeka.

Gaien aurkezpenari dagokionez, aurreko zenbakietan baino aukera zabala goa dela esan daiteke. Sail literarioko olerki eta ipuin batzuez gain, zenbaki haren edukiak honako atal hauek jorratzen ditu: erlijioen historia, euskal nekazaritza, biologia eta psikologia, Manuel Larramendiri buruzko historia labur bat, euskal joskera, etnografia, eta, bitxikeria litekeena: galenazko irratia bat egiteko instrukzioak.

“Galenazko irrat-entzusia” tituluko gaiari dagokionez, diodan, hamar urte inguru lehenago, Jose Migel Barandiaranek galenazko irratia nola ekoiztu erakusten ziela bere ikasleei apaizgaitegiko bere laborategian. Baita fruitua atera ere aparailu haiei: “Con un sencillo receptor de galena, sin pilas ni acumuladores, consigo oír los conciertos musicales de Londres y Bruselas”<sup>33</sup>. Horren harira esan behar da Barandiaran tekniko ona zela eta praktikan jartzen zituela bere ezagutzak, lanak samurtzearen eta apaizgaiei erraztasunak ematearren. Honela idazten du bere egunerokoan ere, 1924ko martxoaren 25ean: “Construyo un transmisor radiotelefónico y consigo **enviar** con él un artículo de “El Siglo Futuro” en el que se hace crítica de la personalidad literaria de Palacio Valdés”.

Ohiko marrazkiekin apaintzen da zenbakia eta 26 orrialde ditu, eta azala eta kontrazala. Noiz argitaratu zen zenbakia? Artikuluen arteko “Urte barri” tituludunak Gabon-jaien hurbiltasuna iragartzen al du?

Bosgarren zenbakiak aurrekoaren ildotik jotzen du. Azalean, berriz, goiburuko “Euskereak burua jasotzea nai du Jaungoikoak” –lehen, *euzkereak, jasotea, Jaungoikuak*– eta, azalean, “Resurrexit sicut dixit” –esan zuen bezala, berpiztu egin zena esaera dakar, marrazki batekin. Aurrera betiko kideek atondu eta argitaratutako osagaiekin argitaratu zen zenbakia.

“Eusko Langilea” titulupean ageri den artikuluan –Kepa Anakaberen eskutik sortua dela esan liteke, kideen arteko irakurraldietan gai hori aztertu baitzen hark aurkeztua– jartzen du:

Beste gizon guztiak lez, eusko langilea be zorion bila dabil. Zorion egarri bait'gara guztiok... Zoritxarrez, gizarteria asko zabaldu da gure errietan. Tamal aundia benetan. Ez bil-durtu ta atzeratu baña orregaitik. Ba'dogu gure errian gizarteria baño indar aundiagoa

33. “Jose Miguel de Barandiarán. Diario Personal 1917-1936” (Barandiaran Fundazioa. 2005).

daben beste batzar bat. Batzar ori Eusko-langile Batza dozu, irakurle... Eusko-langilea Batzar orretara eruaten guztiok alegindu bear gara; apaiz egindakoa batez be [...]

Arizmendiarietaren oharrei esker dakigu Berpizkunde Egunerako argitaratu zutela bosgarren zenbaki hori. Berrehun eta sei aleko tirada izan zen eta 0'80 pe-zeta irabazi zuten<sup>34</sup>.

Ez dugu aurkitu seigarren zenbakiko alerik eta ez zaigu heldu haren gaineko erreferentziarik.

Zazpigarren zenbakiarentzat prestatu ziren Aurrera Betikoak eta "Urtzitziko Kardaberaztarrak" izenpean argitaratu zituzten euren lanak, zein nori zegokion zehaztu gabe. Hogeita hamabi orrialde ditu, azala eta kontrazalaz gain. Eta azaleko marrazkiak *Ekin* aldizkaria sutondoan eserita irakurtzen ari den baserritar bat dakar.

Jose Mari Zamora "aurrerabeti"arrak idatzi zuen urte batzuk geroago: "Gure aldizkingo lanak, geienak edo asko "Ekin" asterokoan argitaratu ziren. Baita be batzuk "Argia"n eta "Euzkadi"n, eguneroko euskal atalian"<sup>35</sup>. *El Díak* ere egiten zuen.

Hamabost idazlanek osatzen dute zazpigarren zenbakia, tratamenduz gero eta sakonagoak. Denetariko esparruak jorratzen dituzte gai horiek.

Zortzigarren zenbakia heldu zen eta, bere kanpo-itxuran, aldaketa txiki bat nabari dakiok. Ez darama azaleko ohiko marrazkia. KARDABERAZ izenak zeharkatzen du portada, goiko ezker aldetik beheko eskuineraino. *Gymnasium* aldizkariak zerabilen apaizgaitegi berriko irudiaz gain baserri bat ere jarri zuten zenbaki berriko azalean. Eta aurkibidea zehaztu aitzin, honako zehaztapen hauek irakurtzen dira: "Gazteiz. 1936-Otsaila-8gna. Jakintziztilariak argitaldua".

Beraz, gorago ikusi den bezala, Yakintz-Bide Batzakoek ardura hartu zuten zortzigarren zenbakiko edukia prestatzeko, eta horrela egin zuten. Hogeita hamahiru orrialdeko edukia hamazortzi gaitan dago banatua. Aurreko zenbakietan bezala, ez diote artikuluari egilearen izenik jartzen, eta beraz, ezina gertatu zaigu nortzuei dagozkien jakitea.

"Aurritza" izeneko sarrera luzexkan irakur daiteke, maiz gainera, "eusko-erriaren berpiztea" kontzeptua. "Bidezkoa da berpizte ori: Yainkoak Berak eman dion bizitzarako eskubidea bait' du oñarri".


Zenbaki horretako sailen tituluaren azpian erdarazko hitz bat agertzen da, hizki txikiz idatzita. Honela: "Nora? Orientación", "Elerti. Literatura", "Gizaizti. Antropología", "Gizartizti. Sociología", "Bizizti. Biología", "Endaizti. Etnología", "Pisia. Física", "Orizti. Ontología", "Edesti. Historia"...

Hain zuzen, Edesti sailaren barruan sartu zen "Araba euskaldun" artikulua. Honela idazten zuen egileak: "Ez ditugu oraingoxeak arabarrak. Jainkoak daki elur-maïndireak zenbat aldiz estali dituen onezkero oien gari-soroak". Eta euskararekin lotutako historian zeharreko ibilalditxo baten ostean, honela amaitzen du:

34. "Jose Maria Arizmendiarietaren oharrik" "Arizmendiarietaren Dokumentu Funtza". (www.eusko-media.org).

35. "Aita Kardaberaz'i Omen-aldi" (Kardaberaz Bazkuna. 1971).





[...] Ordutik, dozenerdi uritan ez beste euskal-krabeliñ-usairik ezta iñon ere aditzen [...] Gaztelarreko artue-manak ez ezik, ba-dute apaiz erdeltzaleak ere errurik. Erri laguntzalle bearrean, erri-ondatzalle izan dira apaizak [...] Gauden gerora. Ametsa on da beti; gaixko ez-pa'da behintzat [...] Aundiagoak ikusteko jaiο gñan. Etorkizuna ez al da, ba, gazteona? Apaiz eta apaizgai gazteok, berriz, Euskerak gauzka. Euskerarena da, beraz, etorkizuna.

Zortzigarren zenbakiak bi argitalpen izan zituen; aurrena 150 alekoa eta bigarrena beste 50ekoa. Aurrekoekin bezala, ale guztiak apaiz-gaitegian saldu ziren, banaka batzuk izan ezik, Euskal Pizkundeko idazle eta eragilerik sonatuenek jasotzen zituztenak, hain zuzen: Aitzol, Orixe, Lauxeta, eta abar.

Ikusi dugun bezala, garaiko idatzizko euskal komunikabideek noizik behin aldizkariari buruzko kritikak egiten zituzten. Lauaxetak honela idatzi zuen zortzigarrenaren gain, 1936ko otsailean: “Kardaberaz, materialmente la revista peor presentada de Euzkadi, es sin embargo la publicación con más valor con que cuenta este idioma”<sup>36</sup>.

Bederatzigarrena kaleratzeko, Aurrera Betikoek berreskuratu zuten txanda, eta 1936ko apirilean ipini zuten aldizkaria irakurleen eskuetan. Euren estilo apalagoari berrekin zioten, eta, zazpigarrenean bezala, “Urtzitziko Kardaberaztarrak” izenpetze kolektiboarekin aurkeztu zituzten zenbakiko hamalau gaiak.

Aste Santuaren inguruan publikatu zela-eta, gai erlijiosoen toki handia hartu zuten; hogeita hamahiru orrialde bete zituzten hamalau gairekin. *Kardaberaz* aldizkariak argitaratuko

zuen azken zenbaki hau “Gorriñak jota” titulua daraman lanak ixten du. Bertan, zenbait urte lehenagotik burutzen ari zen “Charta Linguistica”ren inguruko albisteak ematen dira. Egile anonimoa minduta ageri da, herrietatik jasotzen ari diren inkestak emaitza ez baita euskararentzat ona. “Pozgarri baño negargarri gehiago dakarkigute erantzun oiek”. Eta erantzunen lagin bat eginez, Gipuzkoako Amasa-Billabona eta Azpeitia, eta Bizkaiko Arrieta eta Ea herrietako euskararen egoera zein den azaltzen da.

36. “El euskera en el seminario de Vitoria hasta la guerra (1926-1936)” Andres Ibañez Aranaren oharrik, hitzaldi baterako prestatuta.

“Irakurle, zure errian nola dago euskera? Bizi dalakoa bakarrik? Ala bizkor? Erantzun nai al diguzu? Eskatu galderaldiak “Yakintz-Bide-Batza”ko Euskaltzaliei”. Horiexek ditugu aldizkariak argitaratu zituen azken hitzak. Azken mezua.

#### 4. Misoak

Apaizgaitegiko ekintzen barruan, Misoietako Elkartek eragiten zuena zen garrantzizkoenetakoa. Eta, lantegi hartan, Jose Ariztimuño “Aitzol” gailendu zen iragan mendeko bigarren hamarkadan, 1928-29 ikasturtean Misionologia gaiaren lehen irakaslea izan baitzen, eta, aldi berean, Misoietako Elizbarrutiko Idazkaritzaren Zuzendaria. Garai hartakoa da Roman Laspiur apaizgaitegiko errektorearen esaera hura ere: “La lengua oficial es el castellano, aunque alguna vez se tolere cantar algunos cantos en vascuence”<sup>37</sup>. Hala ere, Secretariado de Propaganda y Organización Misionalaren *Nuestro misionero/Gure mixiolaria* aldizkaria nabarmendu behar da, hasiera-hasieratik euskarari toki zabala eskaini zion-eta.

Apaizgaitegiko hizkuntzen arteko oreka zeharo aldatu zen hurrengo hamarkadan, eta euskarak espazio handiagoa hartu zuen. Filosofiako ikasleen bultzada gero eta indar handiagoakoa zen, eta elebitasunari buruzko eztabaidak areagotu egin ziren.

Filosofiako Misio-Bankuak 1934ko apirilaren 2an eskatu zuen Bankuaren bileretako aktak bi hizkuntzetan idaztea. Hilabete geroago lortu zen elebitasuna Bankuaren Diru-Bilketa Sailean, eta, bileretako idazkaria edota diruzaina euskaldun ez bazen, laguntzaile bat jarri behar zitzaion, itzulpena egin ziezaien. Baina urte bereko abuztuan, Saturrarango Apaizgaitegi Txikian, Misoietako Batzorde Zentralak urrats bat gehiago eman zuen, Gasteizko Apaizgaitegiko errektorearen onespenerekin: euskara modu ofizialean erabiliko zen, baina Bankuak erabaki behar zuen, akta bi hizkuntzetan erredaktatzea edo bat euskaraz eta hurrengo gaztelaniaz idaztea<sup>38</sup>. Noski, errektorearen erabaki horrek aktez gaindi egiten zuen jauzi, izan ere aktak hizkuntza bakarrekoak izanez gero, baldintzatzen ari zen Bankuaren giza konposaketa bera. Batzorde Zentralaren egun haietako aktak, dena den, bi hizkuntzetan agertzen dira, idazkaria Txomin Irigoien kardaberaztar oiartzuarra zelarik.

Baina urte hartako azaroan Batzorde Zentralak etena eman zion Misoietako atal desberdinen bilerak euskaraz egin nahi izateari, eta inposatu zuen aktak bakarrik jasoko zirela bi hizkuntzetan; aukera uzten zuen, hori bai, akten liburu ofizialean bi hizkuntzak tartekatzeari, baina, euskaraz idazten bazen, itzulpena egin behar zen, modu estraofizialean artxibatzeke eta, jakina, idazkari ez euskaldunak osotasunaren gaineko ezagutza eduki zezan.

Batzorde Zentralak bere epaia eman ondoren ere, filosofoak ez zeuden gelditi, eta horrela, hiru hilabete geroago, 1935eko otsailean, Diru-Bilketa Sailaren “Hoja mensual” txostentxo aurrerantzean bi hizkuntzetan ateratzea erabaki zen.

37. Idem.

38. “Historia del Seminario Diocesano de Vitoria. Volúmen 1” (Andres Ibañez Arana. ESET. 2005).

Eta Filosofiako Misio-Bankuaren azken akta, 1936ko martxoaren 5ekoa, euskaraz dago.

Hirugarren mailako Aurrera Beti Kardaberaz taldeko lehendakariordea zen Jose Maria Arizmendiarietak idatzi zuen bere oharren artean:

Euskera-alde ezer egin al izan dogunetan beti egin dogu. Mixio-batzarrak bide, be, naste-txu batzak izan genduzan. Ibili ta ibili, agiriak egin zitezela euskeraz. [...] Asi, be bai egi-ten, baña atzera galerazo egin eben[ ...]<sup>39</sup>.

Komentatu dut gorago *Nuestro Misionero/Gure Mixiolaria* aldizkaria. Eta aipamen zabalagoa egin behar zaio, oso ekarpen bikaina izan baitzen, baita euskararentzat ere.

Aldizkaria 1924an hasi zen argitaratzen, bi hilabete behin. Eta 1936ko otsailean atera zen azken zenbakia, hirurogeita hamargarrena. Aldizkariaren protagonistak misiolariak eurak ziren eta hamabi urteetako emaitza oso aberatsa gertatu zen. Aldizkariaren bilduma artxibo ederra bilakatu da, misiolari euskaldunak ari ziren lurraldeetako historia, etnografia eta kronika soziologikoa ezagutzeko. Horrez gain, aldizkariak oso argazki esanguratsuak publikatu zituen. Gasteizko Apaizgaitegiak aldizkari horretan diru dezente inbertitu zuela esan daiteke, okertzeko beldurrik gabe.

Jose Ariztimuño "Aitzol"i zor zaio hasieratik aldizkariko edukiaren pisuzko zantia. Urte batzuk geroago hark apaizgaitegitik kanpo edukiko zituen beste lantegi dibulgatiboetarako aurreneko proba-bankua gertatu zitzaion hura, zalantzarik gabe. Eta Ariztimuñorekin batera agertzen den beste izen handia Manuel Lekuonarena da, euskarazko edukien arduraduntzat har baikenezake. Batzuetan bien izenekin sinatzen dira artikuluak. Lekuonaren maisutasuna erabiltzen da itzulpenetan. Lekuona itzultzaile bikaina izan zen, *Nuestro Misionero/Gure Mixiolaria* aldizkari honetan ere argi eta garbi frogatzen den moduan. Adibide ederra eskaintzen digu, Urabako prefektu apostolikoa zen Jose Joakin Arteagaren erdal poema baten itzulpenarekin. Hona hemen zati bat<sup>40</sup>:

|                        |                    |
|------------------------|--------------------|
| Jaungoikoangandik      | Sólo de Dios       |
| gatoz,                 | procedemos,        |
| ta bear izan estuaz    | Y tan sólo en Dios |
| bide onez edo gaitzoz  | vivimos,           |
| Jaungoikoagana         | Y en Él solo       |
| guaz.                  | nos movemos.       |
| Urak itxasotik datoz   | Dichosos si        |
| eta itxasora dijuaz... | allá volvemos      |
| Ai etorri bezin garbi  | Tan puros como     |
| jutekoan balijuaz!     | salimos"           |

39. "Jose Maria Arizmendiarietaren oharra" "Arizmendiarietaren Dokumentu Funtza". (www.eusko-media.org)

40. "Nuestro Misionero/Gure Mixiolaria" 1926ko agorra-urrila.

## 5. Beste ekintza batzuk

Gasteizko Apaizgaitegian, modu apalean izan bazen ere, izan ziren beste ekintza batzuk euskararen inguruan. Gerra aurreko bi hamarkadetan, Manuel Lekuona izena da nagusi era guztietako agerpenetan: euskarazko klaseak, euskal literatura, euskal gramatika, euskarazko idaz-lehiaketak, agerkariak, liturgia, euskal liburuen hedapena, euskararako itzulpenak, eta abar.

Manuel Lekuonak apaizgaien artean ereindako literatura-zaletasunaren haizak fruitu onak eman zituen. Jaramon egin zion oiartzuarrak 1922ko Eusko Ikaskuntzaren III. Kongresuaren eskariari: “Euskalerriko abade gustieri, alderdi gustietako politikatik alde eginda, erriari eliza-arazo gustiak euskeraz irakatsi dagioela eskatu, ta gañera, eurek, abadeak, euskera lantzeko alegin beroak egin dagiejala”. Eta apaizgaitegian benetako iturri emaritsua eratu zuen Lekuonak.

Izen ugari atera dira gorago, baina beste asko daude hemen edo han, adore gehiago edo gutxiagorekin, euskalgintzan aritu zirenak. Ehun eta bost lagunek eman zuten izena euskararen aldeko “Euskaldunokin euskeraz” aldarrikapean. Horietako batzuek urte haietan eta baita geroago ere argi bereziz dirdiratu zuten euskal zeruertzean.

Literatura-argitalpenak ditugu *Kardaberaz* eta *Gymnasium* aldizkariak. Aipamen berezia ere egin diogu *Nuestro Misionero/Gure Mixiolaria* agerkariari. Baina izan ziren gehiago. Adibidez, 1934-35ean Apaizgaitegiko erretorea zen Eduardo Eskarzagari eskainitako omenezko liburuan, euskarazko lan bana argitaratu zuten Jose Maria Arizmendiarieta, Domingo Loinaz eta Manuel Lekuonak. Eta Jose Migel Barandiaranek ere tartean zela, *Idearium* aldizkaria azaldu zen, 1934ko martxoan. Erlijio-zientziaren sintesi eta ikerketarako agerkaria zen. Manuel Lekuonak lan banaka batzuk publikatu zituen euskaraz bertan.

Baina ezer aipatzekotan, apaizgaitegiko euskal literaturari dagokionez, olerkigintzara jo behar da. Apaizgai mordo batek landu zuen generoa eta garaiko idazlehiaketetara sarritan aurkeztu ziren, nahiko emaitza onekin.

Garai hartakoak dira Praixko Garmendia, Maximo Yurramendi, Daniel Ayerbe, Luix Agirre, Jose Luis Iñarra, Meliton Sarasua, Fabian Loidi, Luxio Martinez, Jose Antonio Usobiaga, Alexander Mendizabal, Mitxel Las, Txomin Jakakortajarena, Jose Luis Lekuona, Anizeto Zugasti, Joakin Dorronsoro, Iñaki Otamendi, Angel Sukia eta beste hainbat olerkari. “Euskaltzaleak” elkarteak 1930ean publikatutako *Euskal Olerkiak* liburuan horietako batzuen olerkiak azaltzen dira.

Kalitate garaiko literatura zen, beraz, apaizgaitegian ekoizten zena, eta batzuk sarituak izan ziren Aitzolek antolatutako Euskal Oleriti Egunean. Horrela, besteak beste, 1932an, Txomin Jakakortajarenak bigarren saria eraman zuen Loramendi irabazlearen ostean. Urte hartan, *Kardaberaz* Bazkuna ere saritu zuten, lan kolektiboarengatik. Bi urte geroago, *Kardaberaz*ek ere eraman zuen saria Gabongiroko olerki-ekarpenarengatik, eta Dorronsorok herri-saileko bildumarengatik. 1936koa izan zen ediziorik aberatsena Gasteizko Apaizgaitegiaren ordezkariarentzat: Iñaki Otamendik eraman zuen Ohorezko Saria, “Giza Adinak” obrarekin. Eta Angel Sukiak, berriz, Ohorezko Aipamena, “Eusko Apaizgaiarena” obrarekin.

"Omarit eum Dominus..."

(Oroskio.)

v.I.~

i Omets! Uraceu suntis joxea...  
Bart oratsuan ezin dakoa.

Geen mendiruntz ezurki sarra;  
Nire gain beris ilun atara  
Besorak rabul nagean...

Mendi katetik beste mendira  
Lari orhileu, dena bezira,  
Izardi pateer lurtita...  
Mendi puntarantz ezurki sarra;  
Nire gain beris ilun atara  
Orki sitaler jantita.

... Inetan, bario, justo bekoan  
Gizon bat arki nire alban.  
Bere leziak

i Lue! Baineau, nire mintzarak  
Gera datarik samitazrak.  
Ezuz gurian  
laister aurian,

... Bati liriak  
Nuntait galduak ezurki sarasi...  
Bezi-bezira jedi nerori.

Etta esis alaru ezin naitrak...

Tipar alai bere espainetan,  
Pera sartzen dit hira ranetan;  
Makile joroko

Euskal gisadun jatorren lila  
(Eskun hinkilik suaitz makila)  
Noruntz orake

eskun dazetko,  
Jantzi joriak listar jantzetan.

itratdu arte,  
Birikien detan jharik jaxila...?

Erazuna dut: aldera radia.  
Iti dazidara bildur gutxi...  
Jantzi joriak

Bezi garvak makila lurtirik  
Baine hira ok jidin auririk,  
Ederi nitau lidean.

denak keriak;  
Arpezia orde... leuzo leziak.  
i Apais leu zana, jorai jantzi ezin.  
i Noruntz ordea, noruntz orake,

Azken bi saridun horien beste lan batzuk irakurri ahal izan ditut Manuel Le-  
kuonaren artxiboan. Lan gehiagoren artean, Otamendi'tar Iñaki, "Goierri" izengoi-  
tiz, eta Sukia'tar Gotzonen olerki ineditoak gordetzen dira han, Gasteizko apaiz-  
gaitegian burututako literatura-historia baten zain. Espainiar eliza-hierarkiaren  
buru garrantzitsuenetarikoa izatera heldu zen zaldibiarren olerki baten zatitxo bat  
ekarri nahi izan dut lerro hauetara. "Amavit eum Dominus..." titulatu zuen:

Amets! Uraxen amets goxoa  
Bart arratsean egindakoa

Mendi batetik beste mendira  
Larri nebilen, dena begira,  
izardi pathez buztita...  
Mendi puntarantz eguzki zarra,  
nire gain berriz ilun abarra  
odei zitalez jantzita.

Euskal gizadun jatorren bila  
(eskun zintzilik zuaitz makila)  
Noruntz noake  
itzaldu arte  
biotzen detan ekaitz ixila?

Alai gaitezen, urrun ditzagun  
barnetik odei zitalak!  
Oraindik ere badira nunbait  
Euzkeldun seme bikañak...!<sup>41</sup>

Aurrera Beti zein Yakintz-Bide Batzakoen araudietan, euskal kultura ahalik eta  
modurik zabalenean barreiatzea aldarrikatzen zen, eta horri atxiki zitzaizkion indar  
oso.

Antzerkia izan zen zereginetako bat. Manuel eta Martin Lekuona anaien *Eun  
dukat* ezinbesteko obrari beste batzuk gehitu zitzaizkion, apaizgaiek eurek sortuta.  
Arizmendiarrietaren artxiboan gordetzen da berak 1934ko abenduan idatzitako  
obraren kopia bat: *Mendibitarren larridak*. Eta berak dio, "antzeztu al izan genduan".  
Ibañez Aranak bere ikerketa-lanean dioenez, 1935eko Gabonetan egitarau zabala  
eskaini zen antzerki, dantza eta folklореaren bitartez.

Lau urte lehenago, 1931ko apirilean, apaizgaitegian omenezko ekintzak izan  
ziren Zubigar olerkariaren inguruan, haren heriotzako lehen urteurrenean. Hitzaldi  
nagusi bat izan zen, Koldo Agirrek emana, eta zenbait apaizgaik –Loizate, Esnaola,  
Garamendi eta Zuluaga– Zubigarren olerki bana irakurri zuten.

Liturgian ere aldaketa sakona gertatu zen euskarari dagokionez. Goian ko-  
mentatu dugu apaizgaitegiko giroa, 1925-30 urteetan, ez zela euskal hizkuntza-  
ren aldekoa. Errektoreak eragozpen guztiak jartzen zituen euskararen presentzia haz  
ez zedin. Adibide gisa, 1928ko martxoan izandako bi eguneko gogo-jardunetan bi  
euskal abesti kantatu zen jaunartze-unean. Musikako Artxiboaren Egunerokoa ira-

41. "Manuel Lekuona Funtsa" (Eusko Ikaskuntza).



kurtzen da: “Manda el Sr. Rector un aviso respecto de los dos cantos nuevos “Barka, Jauna, Barka” y “Zer dirade gure egunak”, diciendo que no se deben introducir esta clase de cantos, pues la lengua oficial es el castellano”<sup>42</sup>.

Andres Ibañez Aranak Gasteizko Apaizgaitegiari buruz eginiko ikerketa lan mardulean, euskararen gaineko ohar ugari ematen ditu. Eta berak egindako kalkuluen arabera, 1926-32 urteetan abesten ziren kantuak, % 80 gaztelaniazkoak ziren eta % 13 euskarazkoak. Gainerakoa latinari zegokion. Proporzioa, ordea, 1932-36 urteetan, zeharo aldatu zen: % 71 zen euskaraz abesten zena. Eta Ibañez Aranak gehitzen du:

Esta proporción habría resultado dura de soportar para bastantes seminaristas si no fuera que la parte más importante del canto en la capilla se hacía en gregoriano, en latín por consiguiente, y los cantos de la Schola eran prácticamente todos también en latín<sup>43</sup>.

Apaizgai gazteen artean euskal literaturarako zaletasuna eragin nahian, Aurrera Betikoak liburuak saltzen aritu ziren. Arizmendiarietaren oharretan irakurtzen denez, Ixaka Lopez Mendizabalen argitaletxean baldintza bereziak ematen zitzaizkien arren, salerosketa-ekintza hark galerak utzi zizkien, eta defizita olerki-sariketetan jasotakoarekin eta bazkide bakoitzak ipinitako kuotarekin estali ahal izan zuten. Liburuen salerosketan, batzuetan, Yakintz-Bide Batzak eskua luzatzen zien laguntza emateko. Txomin Agirrereren *Garoa* eleberraren ehun ale saldu zituzten 1935eko Gabonetan.

Arizmendiarietak aipatutako defizitaren nondik norakoaz jabe gaitzen, dena den, argitu behar da lantegi haren bitartez Aurrera Beti taldea bere euskal biblioteka osatzen joan zela, eta –liburuen zerrendan ikus daitekeenez– titulu historikoak zein garaikoak eskuratzen zituzten. Hori bai, “Liburuok bazkidiak bakarrik irakurriko dabez; gañerakuak ez dauke eskubiderik” jartzen du “Aurrera Beti. Kardaberaz Bazkunaren idaztiak” deritzan dokumentuak.

## 6. Politika

Irudi daitekeen bezala, apaizgaitegiko giroa –sozial, kultural zein politikoa– kanpo-eraginak baldintzatua egon zen XX. mendean zehar. Aztertzen ari garen aldi honetan ere, gorabehera bortitzak bizi izan zituen apaizgaien kolektiboak, bakoitzaren jatorriari begira, idearium margoaskotarikoa marrazten baitzen. Gehiengo bat, eta urte luzez, euskal sentimenduak marka zezakeen estiloaren kontra ageri zen, horrela zela erakusteko inolako arazorik gabe, gainera.

Monarkia- eta errepublika-sistema politikoak ezagutu zituen Apaizgaitegiak, Francoren kolpeak dena ilundu arte. Irakasleak, gehienbat integristaoren korrontearekin bat egiten zutenak izaki, ez ziren aproposak gizarte zibilarekin lan egin be-

42. “El euskera en el seminario de Vitoria hasta la guerra (1926-1936)” Andres Ibañez Aranaren oharra, hitzaldi baterako prestatuta.

43. Idem.

harko zuten apaiz berriengan prediku aurrerakoia ereiteko. Horrezaz gain, espainiar kulturak agintzen zuen eta ozta-ozta egiten zitzaion tokia euskal kutsuko azalpenik txikienera ere.

Dena den, ez dugu pentsatu behar testuinguru hartan euskal kulturaren ordezkari nabarmenenak planteamendu erlijioso kontserbadoreetatik kanpo geratzen zirenik. Jose Migel Barandiaran bera ere *La Constancia* aldizkari integristako kolaboratzailea zen, erdaraz eta euskaraz. Hala ere, politikarekin ez nahasteko ahalegin guztiak egiten zituzten, eta baita –behar izanez gero– horren fede eman ere.

Baina gorago ere azaldu dudana bezala, Jose Migel Barandiaranek beraren kontrako jazarpen eta akusazioak pairatu behar izan zituen. Euskal kulturarekin zerkusua eduki zezaketen ekintzak oro politikaz kutsatuta zeudela argudiatzen zuten maiz apaizgaitegi eta Gasteizko gotzaindegiko agintariek. Honela idazten du ataundarrak –garai hartan Apaizgaitegi Kontziliarreko errektoreordea– 1924ko ekainaren 28an:

Pido al Sr. Vicario General permiso para asistir a la sesión de la Junta Permanente de la Sociedad de Estudios Vascos. Al principio me pone dificultades, pero al decirle yo que si teme al Directorio militar buscaré yo quien pueda informar de mí al dicho Directorio me ha dado permiso con la condición de que no aparezca mi nombre en la nota que se entrega a la prensa<sup>44</sup>.

Errepublikara-garaian ere tentsioa ez zen baretu eta tirabirak etengabe gertatzen ziren norabide guztietan. Aurrera Betikoek zein Yakintz-Bide Batzakoek garbi zeukaten ezin zutela labainkadarik egin politikaren aldetik, eta euren araudietan esplizituki adierazten zuten: “Kardaberaz-Bazkunaren mala ontan politika usañik ez-togu iñolaz be ontzat emongo”.

Bi taldeen bileretako aktetan ere maiz agertzen dira politikari buruzko aipamenak, horren aldeko tentaldi guztietatik ihes egin behar dutela gogoraraziz. Honela irakur daiteke haietako batean: “Ez digu gutxitan Aritzmendik esan, baina gaurkuan ere bai: gure artian politika usañik ez dala bear. Euzkera gure izkuntzaren alde gogotik lan egin, baña erriketa edo politikan sartu gabe”<sup>45</sup>.

Edozein modutan, hirugarren hamarkadako lehen urte haietan gauzak pil-pilean zeuden apaizgaitegian, eta apaizgaien arteko liskar dialektikoak bata bestearen atzean sortzen ziren. Etxe barruko diziplina ere printzatzan hasi zen eta baita hierarkia beldurtzen ere.

Idazten du Barandiaranek bere egunerokoan, 1932ko abuztuaren 1ean:

Acerca del Seminario de Vitoria corren los más disparatados rumores: que la disciplina anda por los suelos, que se hace política nacionalista, que yo he realizado una labor política que ha cambiado profundamente el Seminario [...] Por lo que se refiere a la disciplina, es verdad tratándose de las comunidades de Filosofía y Teología. En cuanto a la política, puede decirse que la gran mayoría de los alumnos son nacionalistas, si bien no se observa gran efervescencia política entre ellos [...]. Por otra parte, el año pasado, cuando el adveni-

44. “Jose Miguel de Barandiarán. Diario Personal 1917-1936” (Barandiaran Fundazioa. 2005).

45. “Aurrera Beti”koen akta, 1934ko urtarrilaren 25.



miento de la República con sus acometidas contra la Iglesia [...] los grupos políticos llamados católicos y la prensa llamada católica, los personajes representativos del campo político no reaccionaron presto. Solo la prensa nacionalista y los hombres del nacionalismo supieron dar la cara al enemigo y levantaron el espíritu público<sup>46</sup>.

Ido horretatik egoera zailzen joan zen apaizgaitegian, eta kanpo aldean giro politiko bortitza *in crescendo* zihoan egunetik egunera. Modu berezian bizi izan ziren 1934ko urriko iraultza-egunak, eta hauteskunde eta zalaparta ugarirekin heldu zen 1936a. Kanpoko gorroto eta ezinikusiak apaizgaitegiko horma artean ere izan zuen islapena. Bertan euskal abertzaletasuna bultzatzen zela zioen kanpaina zabaldu zen eta Mateo Mujika gotzainak erabaki bitxia hartu zuen. Barandiaranek kontatzen digu:

El Sr. Obispo convoca a la Rectoral a todos los Profesores y les habla acerca de la campaña que ciertos sectores de la política hacen contra el Seminario, diciendo que en este centro son educados los jóvenes con tendencia a favorecer las ideas nacionalistas. Lo cual –añade– es falso. Y para confirmar su aserto exige bajo juramento delante de todos al Sr. Rector que conteste a ciertas preguntas, y el interrogado dice: Juro que en este Seminario ningún profesor interno inculca en forma alguna ningún género de política. Y juro que no se persigue a nadie por sus ideas políticas y se trabaja todo lo posible porque ningún alumno haga política<sup>47</sup>.

Jose Migel Barandiaranen eskariari erantzunez, 1945ean, Kanbotik Mateo Mujika gotzainak izenpeturiko “Imperativos de mi conciencia” idazkian garbi utzi nahi izan zuen Gasteizko Apaiztegia ez zela inongo batzoki.

## 7. Euskal Pizkundera Arabako gizarte zibilean

Hasieran genion bezala, Araban euskarak oso hedapen murrizta zuen XX. mendeko lehen herenean. Euskaltzale bakan batzuen ahaleginak oro txalogarriak izan baziren ere, oso eragin txikia izan zuten. Jose Ariztimuño “Aitzol”ek presiditzen zuen Euskaltzaleak elkarteak 1930eko arabar euskaldunen kopurua 8.500 hiztunekoa zela dio, 28 herritan banatuta.

Ander Arzelus “Luzear” idazle eta kazetariak adierazten zuen, euskaraz idatzi nahi eta bere burua “Gasteizko Andereñoa” tituluarekin aurkezten zuenari erantzunez:

Gasteiztik, erdel kutsuz jositako eusko uri ederretik dator [...] Ori da bidea, ori, arreba. Gure jakintsuak ere ortik joko balute laster ikusiko luteke, bear bada, irakurle bearrean baño idazle bearrean arkitzen dala euskera. Ekin, ekin [...] konponduko gera ta<sup>48</sup>.

Bitxia bada ere, Gasteizko apaizgaitegitik XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan atera ziren apaiz euskaldun gazte berri ugari Arabako herrixketara bidali zi-

46. “Jose Miguel de Barandiarán. Diario Personal 1917-1936” (Barandiaran Fundazioa. 2005).

47. “Jose Miguel de Barandiarán. Diario Personal 1917-1936” (Barandiaran Fundazioa. 2005).

48. “El Día” 1930-10-04.

tuzten. Kasu batzuetan, gainera, zigor gisa. Eta lekukotasunen arabera, badirudi apaiz horietako batzuk euskararen aldeko jarrera aktiboan aritu zirela, ahal izan zuten bitartean. Horra hor, adibidez, Jose Luis Iñarra oiartzuarraren kasua Miñaon, edota Martin Lekuona beste oiartzuarrarena, Musitun. Herri berean jardun zuen Fabian Loidik Lekuonaren ostean. Txomin Jakakortajarena ere buru-belarri saiatu zen Nafarrate, Zirano eta inguruko herrixketan. Eta Iñaki Azpiazu, Gesaltzan. Zer egin zezaketen apaiz euskaltzale haiek erabat erdaldunak zituzten eliztarren aurrean?

Juan Mari Lekuonak artikulu interesgarri bat argitaratu zuen *Euskera* aldizkarian, “Euskaltzaindiaren Laguntzaileak (1933)” tituluarekin. Bertan, Martin Lekuona bere osabaren eskutitz bat aurkezten du, Musitun 1933ko abuztuaren 13an idatzia, eta idazkian “Euskaltzaindiaren Laguntzalleak-Yaur Salla. Colaboradores de la Academia de Lengua Vasca/Sección Tutelar” deritzanaren berri ematen du:

Como Vd. sabe muy bien, el euskera, desgraciadamente, no se habla ya en casi toda Alava [...]. Nosotros hemos escogido por campo de nuestra acción euskerista, éste donde el Euskera es ya difunto [...]. Nosotros, unos cuantos sacerdotes nos propusimos enseñar a los niños de algunos pueblos de Alava cantos rítmicos con todas sus estrofas, para que los niños aprendiesen así las palabras y frases que aparecen en esos cantos [...]. De nuestra organización dos palabras, nuestro nombre es: “Euskaltzaindiaren Laguntzalleak-Colaboradores de la Academia de Lengua Vasca” Bajos sus auspicios, seguramente creceremos y nos extenderemos mucho<sup>49</sup>.

Apaizgaitegian bizi izandako euskal giroa eta, batez ere, Kardaberazeko kide gisa hartutako konpromisoa azkeneraino eraman zuten apaiz haiek, egindako lanaren testiguen adierazi dutenez. Eskutitzaren data hartan, herrietan ordurako lanean ari ziren apaizez gain, Apaizgaitegian –Lekuona bi anaiei eskutik– beste dozena bat gazte prestatzen ari ziren “laguntzalle” bezala aritzeko<sup>50</sup>.

Denbora gutxi izan zuten apaiz gazteek euren bihotzean zeramaten euskararekiko garraz eliztarren kontzientziak pizteko. Baina haien predikuak ez ziren lur idorretan erori.

Gizarte zibilean, nolako eragina izan zezaketen arabar euskaldunek euskararen hedapenean? Oso gutxi, jakina, bai egile eta baita balizko hartzaileen kopuruak txikiak ziren-eta. Lurraldean 1912an jaiotako agerkari batek, EAJren *Arabarrak*, euskarazko testuak argitaratu bazituen ere, ezin dakiok iraunkortasunaren zigilua eman, oso aldizka agertzen baitzen. Bertan publikatutako euskarazko artikuluak –Javier Diaz Nociren iritziz<sup>51</sup>– Luis Eleizalderenak dira, garai hartan Gasteizko Institutuko irakaslea zena. Baina, bertan, beste arabar batzuen luma ere antzeman daiteke, Odon Apraizena eta Andoni Urrestarazu “Umandi” araiarrarena, besteak beste.

Dagoeneko aitatu ditugun izen batzuen inguruan laburbil daiteke Arabako euskalgintzaren irradiazioa. Hor daude, Apraiz anaiak euskaraz zertxobait idatzi

49. *Euskera* XXXVI (2. aldia).

50. “Euskeraren aroak” (Koldo Agirre “Mikelats”. Lekuona'tar Manuel Jaunaren Omenezko idazki – bilduma. 1977).

51. “El periodismo alavés en lengua vasca: una aproximación histórica (1888-1936)” (Arabako Foru Aldundia).

zuen Odon Apraiz izan zen, Euskaltzaindiko kide izatera heldu zena. Horien bul-tzadaz sortu zen 1928an Eusko Ikaskuntzaren “Baraibar Sekzioa” izenekoa. Hel-burua, euskal ohiturak –eta batez ere euskara– Araban hedatzea zen. Jose Maria Diaz de Mendibil izan zen lehendakaria eta Francisco Javier Landaburu idazkaria. Horiezaz gain, parte hartzen zuten, besteak beste, Odon Apraiz, Jose Ariztimuño “Ai-tzol”, Manuel Lekuona, Julian Agirre, Juan Unzueta eta beste lagun batzuek. Denak Eusko Ikaskuntzaren bazkideak ziren.

Aipagarria da Abdon Gonzalez de Alaizaren kasua ere, “Txistu” lehen euskal komikiaren egilea, 1927an. Abdon Madrilen euskaldundu zen, Jose Mari Azkarraga “Lurgorri” Errenteriako aramaioarra bezala. Azken horrek ere –Madrilgo Eusko Ikasbatzaren lehendakari eta Eusko Ikaskuntzaren kide izan zena– zenbait komu-nikabidetan argitaratu zituen bere lanak.

Eta ezin utzi aipatu gabe, “5” literatura-aldizkaria, 1934an Gasteizen publi-katu zena. Oso bizitza laburra izan bazuen ere –lau zenbaki bakarrik argitaratu zi-ren– euskarak tokia izan zuen bertan. Antonio Odriozola eta Odon Apraiz izan ziren euskarazko ekoizpenaren arduradunak<sup>52</sup>.

Euskal Pizkunderak bere garrantzia izan zuen Araban. Eta kultura-uhin horren eragina Arabatik kanpo indartsuagoa suertatu zen arren, Araban ere bere hazia ipini zuen, etorkizun hobearren esperantzan. Gasteiz euskal kulturaren arrago emaritsua izan zen XX. mendearren lehen herenean, eta hiriburutik –batez ere bertako Apaiz-gaitegitik– ehunka lagunek egin zuten lan euskal herritarren garapen aske eta oso-aren alde.

Aurreko orrialdeetan deskribaturikoak, Arabatik Arabarako eta Euskal Herri osorako emandako Euskal Pizkunderaren gaineko ikerketa integralerako gonbida-pena nahi du izan.

---

52. “El periodismo alavés en lengua vasca: una aproximación histórica (1888-1936)” (Javier Diaz Noci. Arabako Foru Aldundia).